



## Xorroxin irratia laguntza eske

Lagun kuadrilla bat junta-tu, eta bakoitzak bere saketik dirua jarritz, sortu zen Erratzun orain dela 18 urte. Orduetik honat ibilbide luzea egin du Xorroxin Irratiak, eta proiektu tiki bat izatetik, komunikabide haundi bat izatera pasatu da bitarte honetan. Gaur egun, bazter hauetako herritar aunitzendako eguneroko lagun bihurtua da. Halere, urteroko diru kontuak berdintzea ez da gauza erraxa izaten, eta gauzak horrela, le-

hen aldiz entzuleengana laguntza eske jotzea erabaki dute.

Izan ere, joan den hilabetean abiatu zuten dirubiltze kanpainarekin etorkizuna segurtatu nahi lukete. «Irratiaren iraupena ez dago arriskuan», baina hala ere, diru-bultzada bat nahi lukete inbertsioak egin eta proiektu berriak gauzatzeko. «Nahi baino gehia-

**Etorkizuna segurtatzeko helburuarekin, entzuleen artean dirua biltzeko kanpaina egiten ari dira otsaila bitarte**

*gotan, mendian dauden antenak eta gainerako tresnak ere hondatu egiten dira, Lesakako estudioa ere muntatu gabe dago...».*  
Orain entzuleek dute hitza.



**3 Elkarrizketa:**  
**Fernando Arburua**  
**19 urte preso**

Legea beteko balitz, Fernando Arburuak duela 4 urte libre egon beharko luke.

**26 Kirolak:**  
**Rafa Errandonea**  
**profesionala**

Hogeita bat urteko arantzara Garfe enpresa berriarekin egiten du debuta asteburu honetan.

# ORDOKI

## ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

# A

rmairu enpotratuen  
erakusketa berria  
Bittirian

ERAKUSKETA Bittina 30 eta Plaza Zaharra 26  
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tinoa: 948 637 780

LESKA



LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK, KUTXAK, BESAUJKIAK...

BAZTAN • MALERREKA • BORTZIRIETAKO SEAT ZERBITZU OFIZIALA

MEKANIKA

ELEKTRIZITATEA

GASEN AZTERTZAILEA

ITVrako PRESTAKUNTZA

DIREKZIOAREN ZUZENKETA

ORDENADORE BIDEZ

SEAT TOLEDO  
SIGNUM



Tailerrak  
Elizondoko  
sarreran

Telefona:  
948 58 02 25

SEAT DATUCELAY

## DATUAK.....

❖ Urtarrilean hemeretzi urte egin ditu kartzelan Fernando Arburuak.

Duela lau urte kanpoan egon behar zuen.

❖ Sei hilabete eman zuen isolamenduan Salto del Negron, inor ikusi gabe. Hiru urtez egon zen lagunik ikusi gabe.

❖ Zugarramurdi-ko gauza aunitz gogoratzen ditu: familia, lagunak, bestak, mendia...

❖ Kartzelatik atera eta eginen lukeen lehen gauza galdutako sentsazioak berreskuratzea izanen litzateke: «herria, mendiak, jendea, ingurua... eta giro berriari egokitu. Kartzelan harreman mundua arras aldatzen da».

TESTUA:  
ELURRE IRIARTE  
ARGAZKIA:  
ARTXIBOKOA

✍ **Fernando ARBURUA IPARRAGIRRE** Zugarramurdiko preso

## “Legea beteko balute, duela 4 urte libre egon beharko nuke”


### BEREZ DUELA LAU URTE KANPOAN EGON BEHAR ZENUEN, EZ DA?

Erredentzioak kontatuz bai, betea dut kondena. Kartzelan pasatzen duzun egun bakoi-tzarengatik eta ikaske-tengatik kondena jausten dute, baina nerek ez dituzte kontatu nahi. Kontatuz gero kanpoan egon nintzen orai 4 urte.

### DARAMAZKIZUN URTE-TAN ZER IZAN DA GAUZARIK TXARRENA?

Lagunen heriotzak batez ere. Egun batetik bertze hil zitzaigun lagun bat, Alberdi. Bertze lagun bat ere gose greba batean erotu zen. Hala lagun aunitzekin izan ditugu momentu gogorak. Gogorrena berriki izan dugu Esteban Esteban Nietoren kasuarekin. Holakotan inpotentzia sentitzen duzu. Hau da espetxearen ezaugarri nagusia. Altxatu zaitezke bainan beti kontrolatua zaude. Egoera normala da hori, eta ez puntuala. Sevillan nintzela ama, arba eta anaiaren heriotzak izan ziren. Gauza bera sentitu nuen: inpotentzia. Asumitua duzu hori, momentua ailegatuko dela eta senideak galduko dituzula bainan ailegatzen delarik gogorra da, hemendik deus egiteko aukerarik ez izate.

► *“Kartzelan altxatu zaitezke, baina beti kontrolatua zaude. Hori da bere ezaugarri nagusia. Inpotentzia haundia sentitzen duzu, baina hori da egoera normala eta ez puntuala.”*



«Hemengo bizitza lineala da eta aldaketa kanpotik dator: bisitak, eskutizak...»

tea. Heriotzaz aparte bertze momentu gogorak erregimen mailan momentu tentso zehatzak. Adibidez Carabanchel, Herrera de la Mancha motinak, isolamenduan bakarrik egoitea, funtzionarioen jarrera txarra...

### HALERE, MOMENTU ONEN BAT IZANEN ZENUEN?

Bai, hoberena lagu-

nen arteko esperientziak izaten dira, denak batera funtzionatzea, lan egitea... Harreman ederra da. Momentu goxoena ere kanpotik etortzen dira, bisitetan. Edo berri onak politika aldetik izaten direlarik ere. Korrespondentzia hartzeko eguna ere maite dut. Orain kartak mugatuak eta interbenituak ditut eta ezin dut aunitz idatzi. Komunikazioa zaila egiten da aunitzetan hilabete baino gehiago kostatzen baita ailegatzea, denak leitzen ditzutelakoz. Hemengo bizitza lineala da. Aldaketa bat izatekotan,

kanpotik etorriko da.

### ZERBAIT ERAKUTSI AL DATZU KARTZELAK?

Beti ikas daiteke zerbaitek eta kartzelak nere burua baliatzen eta jendearekin harremanak sendotzen erakutsi dit. Hain leku ttikian gaudenez, nahitanahiez hurbildu behar duzu eta zaren bezala agertu. Uler-tu eta errespetatu, elkarbizitzaren arau minimoak dire.

### ZER ERRANEN ZENIOKE ESKUALDEKO JENDEARI?

Eskualduntasuna bizkortzeko, mintzairaz harro sentitzea eta hortan segitzeko.



## XORROXIN IRRATIA

# Geroa segurtatzeko diru beharrean

**18 urte bete ditu Xorroxin irratia. 80. hamarkadan Euskal Herrian irradi libreen eztanda gertatu zenean sortu zen Erratzun, eta orduko haretan lagun batzuk beren sakeletik 5.000na pezeta jarri behar izan zuten tresnak erosi eta irratia martxan jartzeko. Denbora franko pasatu da gerozik, eta Xorroxin irratia haunditzen eta hobetzen joan den heinean, herritar aunitzen eguneroko lagun bihurtu da. Orain, lehen aldiz, Xorroxin irratia entzule fidel hoi laguntza behar du aitzinera segitzeko, hazten segitzeko. Izan ere, mendian eta estudioan dituzten antena eta tresneriak zahartzen hasiak dira, eta hoientzat ordezkioak erosteko ez dute aski dirurik. Otsailerarte luzatuko da diru bilketa kanpaina.**

**H**emezortzi urte egin ditu berriki Xorroxinek. Hemezortzi urte bazter hauetako berriak ematen, herritarren komunikazio tresna izaten. Denbora honetan ba-

tek daki zenbat solas, zenbat kantutatu aieratu ote diren Xorroxin irratitik!

Dena den, bide luze hau egiteko hainbat traba izan dituzte bidean, ekonomikoak batez ere. Xorroxin sortu zelarik, Erratzun jarri zuten lehendabiziko estudioa. Beharrezko tresneria erosteko lagun artean bortz milana pezeta bildu zuten, eta ahal zen moduan emititzen hasi ziren. Hauek izan ziren Xorroxin irradi pirataren lehen pausoak. Geroago Elizondon leku hartu zuten bolada batez, euren ahotsa ahalik eta etxe gehieneta-

ra zabal-tzeko Amezieta Legate mendietan antenak paratu bidenabar. Horrela Baztango mugak gainditu

eta Bertizarana, Malerreka eta Bortziritara hedatzea lortu zuten. Geroago Amezieta mendikoa kendu eta Larrungo kaxkoan jarri zuten antena. Iruritako estudiotik emititzen zuten garai haietan.

Iruritan 8 urte eman zuten, iazko hilbeltzean Baztango Udalak gaur egun duten estudioa eman zien arte. Egoitzaren inaugurazioa berri pozgarria izan zen langile eta entzuleentzat, baina poza ez zen tikiagoa izan 1998ko uztailean Nafarroako Gobernuak Lesakako li-



# PROGRAMAZIOA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA	ASTEBURUA
7,30-9,30	"GOIZ ARGI"					-----
9,30-10,10	"UR ETALUR"					-----
10,10-12,00	"ELKARREKIN LANEAN"					"BIDEA"
12,00-14,00	"HERRIZ - HERRIZ"					EGINEZ"
14,00-19,00	M U S I K A					-----
19,00-20,00	"ARRATSALDEKO MUSIKA"					-----
20,00-22,00	"KARAKOLA SEGI HOLA"					-----

zentzia eurei eman zienean. Poza eta harridura, 17 urtez emititzen aritu ondotik, eskuratzzen zuten lehen lizentzia baitzen.

Gaur egun Nafarroa iparraldeko herri gehienetara ailegatzten da Xorroxinen ahotsa, baita Lapurdi eta Gipuzkoako zenbait tokitara ere.

## Asmo berriak betetzeko diru eske

Honaino Xorroxin Irratiaren historia, baina kontua ez da hemen akitzen. Izan ere, 18 urterekin heldutasuna lortu duen honetan, inoiz baino gogo gehiagoz begiratzen baitu aitzinera, bere buruari helburu berriak jarriz. Hoiere artean garrantzitsuena, behar bada, Lesakan estudio berria jartztea.

Hurbilagora begira, ordea, bertze asmo batzuk dute lehen-tasuna, hala nola, mendiko errepikagailuentzat eta estudioko aparailuentzat ordezkokoak erostea. Izan ere, gaur egun mendian duten tresneria zahartzen hasia da, eta huts egiten dutenerako aparailu berriak erosi nahi dituzte. Estudio barneko tresneriekin ere gauza beretsua gertatzen zaie, soinu-mahaiek edo emisorak hondatzen baldin badira, irratia isilik geldituko bailitzateke.

Jose txo Apezetxea, Jose Miguel Barberena "Xumuxu", Izaskun Goienetxe, Marikarmen Irungarai, Marian Iñarrea, Nerea Altzuri eta Goizalde Urdanpilleta, Xorroxin irratiko lantaldea.

Gainera, Urdazubi eta Zugarramurdiko mendi batean antena berria jarri nahi dute, bi herri hauetan ez baita seinalea nahi bezain ongi hartzen. Horretarako entzuleen artean dirua biltzen ari dira abenduaz geroztik, dirulaguntza ofizialek eta publizidadeak ez dutelako nahiko sos ematen. Seguraski ikusi izanen dituzte ostatu eta dendetan jarri dituzten kartel berde horiek. Bi modu daude Xorroxin irratia diruz laguntzeko. Batetik, 1.000 edo 5.000 pezetako laguntza bonoak erosiz, eta bertzetik, irratiko kide edo babesle bihurtuz. Bigarren aukera honen bitartez laguntzaileek urtero irratitari diru-sari bat emateko manera dute, hala nahi duten artean. Dirulaguntza hori 6.000 pezeta da normalean, baina langabetu, ikasle eta jubilatuek 3.000 pezetako saria finkatu dute. Dena den, bistan da azkenean norberak erabaki behar duela zenbat diru eman Xorroxin irratitari. ■

✉ Mari Carmen IRUNGARAI *Berriketaria*

## «Xorroxin irratia ez dago arriskuan, baina bai mendian dugun tresneria»



### Zein izan dira kanpaina hau martxan jartzeko arrazoiak?

Kontuen balantzea egite-rakoan konturatu ginen gastuak gero eta haundiagoak direla iaz egin genituen berrikuntzen ondorioz: estudioa behar den bezala montatu, ekipo berriak... diru sarrerak, berriz, gero eta guttiago. Zoritxarrez dirulaguntza publikoak gero eta bajuagoak dira, publizitatean ere topea egin dugula uste dugu...

### Nola planteatu duzue kanpaina hori?

Bi modutan. Batetik, momentuko diru eskaera, laguntza-bonoen bitartez egin dena. Bi dirulaguntzako bonoak daude, 5.000 edo 1.000 pezetakoak, baina, noski, hoiere ez dira kopuru finkoak, entzule eta lagunek nahi duten edo ahal duten laguntza ematen ahal dute.

Bertzalde, etxer etxe par-

titu ditugu orri berde batzuek, eta hor ongi aski esplikatzeko da zer egiten ahal den Xorroxin Irratiko kide izateko: datuak bete eta irratira bidali. Urtero 6.000 pezetako dirulaguntza eskatzen dugu, eta langabetu eta jubilatuei, berriz, 3.000.

### Orain arte zer moduzko erantzuna izan duzue?

Momentuz ongi. Tarteka deiak izaten ditugu ea zer egin behar den sozio egiteko... Agian orain jendea presaka ibili da eguberrietako erosketak direla-eta, eta igual ez du kasu haundirik egin, baina kanpaina otsaila bitarte irau-nen duenez, espero dezagun jendeak sos pittat gordetzea guretako.

### Biltzen den dirua non inbertitzea pentsatu duzue?

Gauza aunitz daude egiteko. Momentuan ez dago arriskuan Xorroxin irratia, baina bai mendian ditugun tresneriak, adibidez. Izan ere, zahartzen hasi dira, itauxurak hasi dituzte eta edozein momentutan plaf! gelditzen ahal dira. Orduan mendira joan behar da kentzera, Bartzelonara bidali... eta hori gertatzen bada aste bat egoten ahal gara emititu gabe. Hori ez gertatzeko erabiliko da kanpaina honetako dirua, irratia-eguneroko bizitza segurtatzeko, azken finean.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91  
**Internet:**  
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
**e-mail:**  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arozena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza.  
**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza.  
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...  
**Inprimategia:** Gertu.  
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbiztu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria . . . .2.000 Pta.  
Ipar Euskal Herria . . . .140 Libera  
Europa . . . . .3.500 Pta.  
Amerika . . . . .15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### 2000 urteko efektua

#### Lehen ordenagailuak sortu zirenean ez zuten espero 2000. urtera ailegatzea



Fernando RAMOS  
Biur informatikadenda

Zenbaitzuk uste dute gai honekin exageratu egin dela, baina egia erran, gure eguneroko bizitzari kalte handia egiten ahal zion. Enpresa guziak kontzientziatuak zeuden arazoaren inguruan, eta garaiz hartu dituzte neurriak. Maila pribatuan gertatzen ahal zitzaigun gauza bakarra ordenagailuak 2000 urtea ez ezagutzea zen, baina horregatik ez zen ordenagailua geldituko. Dendan jende aunitzek galdetzen zigen ea bere ordenagailuak 2000 urterako "balio" ote zuten. Zenbait ordenagailu ez dira 1999tik 2000rako pausua emateko gai izan, baina eskuz eginez gero urte berria onartzen dute. Batzuk pentsatzen dute guzi honen helburua norbaiten sakelak betetzea izandu dela, baina egia da ordenagailuak agertu zirenean ez zela izan duten eboluzioa izaterik espero, ezta 2000. urtera ailegatuko zirenik ere. Lehen PCa sortu zenean, adibidez, ordenagailuen bizitza osoan saltzea kalkulatzeko zutena hiru hilabetetan saldu zuten. Pozten gara komunikabideek bota dituzten mehatxu guziak deustan gelditu izana. 2000 urte zoriontsua.

#### Nere ustez zuena baino garrantzi gehiago eman zaio



Gloria AGERRI  
Nafarroako Lan Zerbizua

Pentsatzen dut Doneztebeko INE-Meko bulegoan ez dela inolako arazorik izan, momentuz Zuzendaritzatik ez digutela deus erran. Abenduaren 30ean segurtasun kopiak egin genituen badaezpada ere, eta ordenagailuak itzali genituen maiz xamar. 31n ordenagailurik gabe lan egin genuen, baina ez 2000 efektuarengatik, Madrilen besta zutelako baizik, oraindik Madrilekiko konexioaren menpe baikaude. Hurrengo astelehenean, berriz, ordenagailuak bixtu eta ez genuen batere arazorik somatu. Nere ustez duena baino garrantzi gehiago eman zaio efektu famatu horri, nahiz eta egia den, bertalde, sektore batzutan eragin handia izaten ahal zuela. Gure kasuan ez zen horren larria, dokumentazio guziak ordenagailutik aparte idatziz ditugulako, eta datu guziak berreskuratzen ahal genituen. Enpresa guziak kezkatuta zeuden gai honekin, eta bakoitzak bere neurriak hartu ditu. Batzuk exageratuak izan dira, behar bada, baina deus ez gertatzeko birtartekoak jarri dira.

#### Azken egunetan jende pila bat etorri zen kartilak eguneratzera



Jesus Mari ARIZTIMUÑO  
Leitzako Iruñeoko Kutxa

Guk ez dugu arazorik izan bankuan, dena ongi prestatuta zegoen lehenagotik. Kutxazain automatikoetan diru gehixeago sartu genuen badaezpada ere, baina ez dute batere problemik eman. Kontu honen inguruan hainbeste gauza esan dira periodikotan, telebistan... jendea izutua zegoen. Azkeneko egunetan jende pila bat etorri zen kartilak eguneratzera, arazoren bat izanez gero dirua berreskuratzeko gaizki ibiliko zirela esana baitzuten egunkarrietan. Bertze batzuk diru pixko bat eraman nahi zuten etxera badaezpada ere, igual kutxazainak dirurik gabe geldituko zirela... Nere ustez asko exageratu da komunikabideetan 2000 efektu honekin, ez dakit zergatik, jendea izutzeko, edo notizia egiteko bazarrik. Askotan gertatzen da: ez dagola notiziarik? Ba, 2000 efektua hartu eta guk sortzen dugu. Akaso norbaiti gertatu izanen zaio zerbait, baina hau bagenekien orain dela 5 edo 10 urte. Enpresak moldatu dira dena aldatu eta kontrolpean izateko. Gure departamentuak proba batzuk egin zituen eta ez genuen batere beldurrik.

ttipi-ttapa fundazioak  
Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Diskriminazioaren alde zaudete?**

Aurreko TTIPI-TTAPAKoa Irrintzi ostatuari buruzko idatzia dela suposatzen dugunez, lotsaemangarria iruditu zitzaigun. Gure ustez benetako ostatu bat da, eta bertako jabeak ahaleginak egiten dituzten jendea gustora eta eroso egon dadin, honetaz gain, bere bihotzgarritasun hau maitatu eta onartu beharrezan jende mota batzuk errespetu zipitzirik gabe ukatu eta baztertzeko dute, ttipi-ttapa aldizkarian horrelako idatziak argitaratuta, ostatu honeri diskriminazioa eraginez. Hau guretzat onartezina da, batez ere jende hauen errespetu faltagatik.

Argi eta garbi dakizue, ostatu leku publikoa da eta inor ez dago behartuta bertara sartzerako, ondorioz, ez baduzue gustokoa, bertara ez zaitzete sar, eta saiatu zuten nahietara egokitzen den ostatu batetan jarduten, horrela bai zuek, bai beste guztiak larunbata gaua besta giro ederrean pasatuko dugu. Eskerrikasko. Aupa Juan Mari! Aupa Irrintzi! Horrela segi eta ohartu jarraitzaile aunitz dituzula.

ABENDUAREN 26AN IRRINTZI OSTATUAN BESTA EGIN ZUTEN SUNBILDAR ETA ARANZTAR GAZTE BATZUK

**268. TTIPI-TTAPAKO eskutitzari erantzuna:**

Ez dugu isilik geratu nahi, azkeneko Ttipi-ttaparen kritikari buruz.

Egia baldin bada Doneztebekoak zaretela, ez dugu ulertzen nola esan dezakezuen hori. Zuek ondo dakizue larunbat gauetan jendea gustora egoten dela ostatu horretan eta gainera giroa atsegina izaten dela. Honek ez du esan nahi gu gazteri galdu bat garela zuek pentsatzen duzuen bezala, ez bait dugu ezer txarrik egiten. Bukatzeko uste dugu oso berekioak izan zaretela eta ez duzuela kontuan hartu zuen inguruko iritzirik.

MALERREKAKO GAZTE KOADRILA BAT

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

**Euskal presoak eta prentsa**

Euskal preso politikoek mugagabeko gose greban jarraitzen dute. 64 egun hau idazteko orduan, 72 zu irakurtzen ari zarenean.

Bertze behin, gure herria askatzeko gehien eman dutenek euren bizia jokoan jarri behar izan dute oinarriko eskubideen defentsan. Bistan da presoan auziak gure herriaren orain eta geroan duen garrantzia. Horrexegatik, gaur egun, amnistia sekula baino beharrezkoagoa da. Bi estatu torturazailerak, Euskal Herria eraikitzeko prozesua zapuztu nahirik, presoak txantaiarako tresna gisa erabiltzen dituzte, eta guk tresna hori kendu behar diegu eskuetatik.

Bertzalde, komunikazioaren garaian bizi garela aditzen dugu eskuin eta ezker, baina noren esku daude komunikabideak eta zeren menpe ari dira? Adibide gisa: aitzineko igandean urtarillaren 2an milaka lagun mobilizatu zen euskal preso politikoen eskubideen alde eta amnistia aldarrikatzeko. Helburu berarekin, 7 eguneko baraualdia burutu zuten 726 lagunek eta asteburu horretan bertan hamaika enkartelada eta ekitaldi egin ziren Euskal Herri osoan. Biharamonean, Gipuzkoa eta Nafarroan hedapen gehien duten idatzizko komunikabideek beren azaletan ekimen

hauen berri ez dute aipatu ere egiten. Egun berean, urtarillaren 3an, Francok boterean ezarritako errege sasi-demokratikoaren amaren heriotzaren berriari eman zioten ia portada guzira. Oraindik ere, zenbaitzuk, erdiarorian bezala, odolaren kolorearen arabera finkatzen dituzte irizpideak. Guzti honek beren lanbidearekiko zintotasun eskasa baino zerbait gehiago erakusten du: ez da kasualitate hutsa, badakigu boterearekin uztarturik bizi direla, baina ulergaitza da gehiengo abertzalea duen Euskal Herrian, medio hauek erabat nagusitzea salmenta kopuruan.

Presoen egoera ezagutzen dutenek badakite ez dutela kilometroek soilik urruntzen, isolamenduak ere bai. Eta horretan dihardute komunikabide ez komunikatzaile hauek, itozten, ixilarazten, isolatzen. Badakizu nori ordaintzen diozun periodikoa? Kontuz prentsa erosterakoa! Kartzelako paretak egiteko erabiltzen dituzten harriak ordaintzen ari zara eta! Badakigu, oraindik gauza aunitz dagoela aldatzeko, has gaitezen gure esku daudene-tatik. 22an ikusiko dugu elkar, 27an ere bai.

OSKAR GOÑI

(BERA)

**Herriko ofiziale, lantegi, denda, ostalari eta profesionalen telefonoak**

Liburu hau heldu den urte hasieran **banatuko da** TTIPI-TTAPArekin batera **etxe guztietara**.

Hortaz, joan den urteko TELEFONO GIDAn zure telefonoa ez bazen agertu, edo aurten telefonoa eta helbide berriak baldin badituzu, **deitu lehenbailehen**.



**ttipi-ttapa** • Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA

**(+34) 948 63 11 88**

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Diario de Navarra 99ko abenduak 29

«Kotxea ikusten dudanean ezin dut imaginatu ere egin hortik bizirik ateratzeko izan dudana suertea»

«Ospitalean deus ez dudala erran didate, lepoan kolpe bat, baina ez da larria. Eraman nuen ikaria, ordea, ez dit inork kentzen».

**Javier GARMENDIA**

Beraterra  
ABENDUKO EKAITZARENGATIK  
KALTETUA  
Diario de Navarra  
99-12-29

«Olentzerok ikatza ekartzea ulertzen dut, nere bizitza pribatuko alderdi bat baino gehiagotan merezi dudalako, baina iruzurti hauek ez dute eskubiderik guretzat horren maitagarria den pertsonaia baten izena erabiliz nere aurkako kanpaina egiteko».

**Jose Luis ETXEGARAI**

Lesakako alkatea  
Diario de Noticias  
00-01-04

◆ **Miurte berriarekin zer aldatu da?**

◆ Guretzako ezer ez.

◆ **Olentzeroren oparia ailegatu al da?**

◆ Bai, olentzerorena bai.

◆ **Urte zaharra nola ospatu duzu?**

◆ Familiar bildu eta afalduz.

◆ **Errege magoa bazina deseoa bat?**

◆ Bazterretako desberdintasunak konpontzea.

◆ **Gustoko janaria?**

◆ Askok gustokoak.

◆ **Kolore eta zenbaki bat.**

◆ Zuria kolorea, 9 zenbakia.

◆ **Zure burua apaintzean ze kolonia botatzen duzu?**

◆ Ez dakit izenik (Kockorel!).

◆ **Komadrona hitzak zer gogorazten dizu?**

◆ Neskato txiki honen jaiotza.

◆ **Hiru emakumeren artean zu izango zara etxeko errege...**


◆ Ez, hori ez da horrela.

◆ **Zer idatzi diozu erregeari?**

◆ Ez dut kartarik egin.

◆ **Gustatzen zaizkizu eguberriak?**

◆ Bai, bai, gustoko ditut.



**Ramon ONSALO**

ARESO

Mekanikoa, 31 urte



**Bidali TTIPI-TTAPA  
herritik kanpo  
bizi diren lagun edo  
famiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze  
gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.....

**(+34) 948 63 11 88**



## Internet-en sartu da Hiruak Bat eskualdeko landa etxeen elkarteak

www.hiruakbat.biaizpe.net da web-orrialdearen helbidea


### TTIPI-TTAPA

Hiruak Bat elkarteak osatzen duten Baztan, Malerreka, Bertizarana, Bortziriak, Bidasoa, Zugarramurdi eta Urdazubiko 113 landa etxeek Internet-en web orrialdea osatu dute.

Hiruak Bat elkarteak Bertizko Partzuergoaren barnean dago eta Bertizko egoitzan aurkeztu zen Irurtzungo Biaizpe telezentroak diseinatutako web-orria. Orri hau begiratzeko helbide hau markatu behar da: <http://www.hiruakbat.biaizpe.net>.

Eskualdeko etxe baikoitzaren argazkiarekin batera, helbidea, telefonoa, etxearen ezauzgarriak, nola ailegatu bertara eta bertze jakin-garri batzuk agertzen dira Internet-eko helbidean.

Horretaz gain, eskualdeko landa etxe guzien eta herrien informazioa agertzen duen liburuxka bat eta bezeroendako telefono zenbaki berria ere aurkeztu zuten Hiruak Bat elkarteek Bertizen.



Hiruak Bat eskualdeko landa etxe elkartearen web-orrialdearen sarrera. Etxe guzien

Jakina denez, landa etxeek aldaketa batzuk izan dituzte azken aldi honetan (TTIPI-TTAPA 265). Duela hamar bat urte sortu zirenak baserriak ziren eta nekazaritza eta abelzaintzarekin estu-estu lotuak zeuden. Nafarroako turismo eskaintzak aldaketa izan du orain eta kalitatezko zerbitzuen eskaintzaren aldeko apostua egin du.

Halere, landa etxe elkarte ezberdinetako ordezkariak ez daude sobera konforme araudi berriarekin –bere ezauzgarrien arabera, hiru kategoria ezberdinetan sailkatuko dira etxeak, hosto batetik hiru hostoetara–. Hau dela eta, etxeetako jabeek Nafarroako Gobernuarekin bildu nahi dute araudi berria eztabaidatzeko.

Hiruak Bat elkartearen sartuak dauden 113 etxeetaz gain, Leitzaldeko etxeak Aralar elkarrean sartuak daude, Larraun, Basaburua eta Betelukoekin batera (17 etxe). Bi elkarte hauek 60 bat etxe daudela kontuan hartuz, 200 etxetara hurbiltzen da TTIPI-TTAPAREN eremuko landa etxeen eskaintza.

2000. urtean bainu etxeen programan parte hartzeko aukera zabaldu du INSERSOK

### TTIPI-TTAPA

Adinekoek senda-bide egokia eta baikoitzarentzat propioa emateko intentzioarekin zabaldu du bainu etxeen programa INSERSO erakundeak. Zestoa, Arnedillo, Seron eta Fiterora joateko aukera izanen da. Horretarako, urtarilaren 26a baino lehen eman behar da izena Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerreka Gizarte Zerbitzuetan.

Programa hau 65 urtetik goitikoentzat zuzenduta dago; erretiroko pentsioa edo ezintasun absolutoa dutenentzat eta hauen senar-emazteentzat, baita 60 urtetik goitiko alargun pentsiodunentzat ere. Bainuetxeetara joan nahi duenak tratamendu termalaren premia izan behar du, bizimodu normala aztoratzeko moduko buru-nahaste larririk edo eritasun kutsakorrik ez izan eta norbera bere kabuz baliatzeko gauza izan.

Ertegarra 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA  
**ZELAIA Harategia**  
Agerra Auzoan

© 948631076 • BERA

**GOYA**  
JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK  
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak

**EKL ESTU**  
Tfnoa: 948630259 - BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua

Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763

# Berako Udala Udalbiltzako kide da abendu hasieratik

Alkate-zinegotziek ahobatez onartu zuten mozioa

## ASIER GOGORTZA

Abenduaren hasieran aparteko udal bilkura egin zuten Herriko Etxeko ordezkariak. Egun horretan, Euskal Herriko Udala eta Udala Ordezkariei Biltzarrean (Udalbiltzan) sartzea onartu zen ahobatez.

Ekitaldiari ospakizun kutsua eman nahi izan zioten herriko hautetsiek, eta, zinegotziez gain, hainbat herritar hurbildu zen Herriko Etxera. Josu Goia alkateak Nafarroako himnoa edo ereserkia jo zuen herritarrei ongietorria egiteko, eta ondotik Udalbiltzaren helburu eta egitasmoak irakurri ziren denek aditzeko moduan. Eguerdiko aldea altxaferoak botatz eta txistu doinu artean eman zitzaion akabaila ekitaldi berezi honi.

### 6 beratar gose greban

Eguberri hauetan Euskal Herriko 4 hiriburuetan egin diren aste osoko gose greban parte hartu dute sei herritarrek. Abenduaren 27tik urtarrilaren 2a arte iraun du protestaldiak, eta 100 nafar inguru bildu zen Recoletas karrikako AEKren lokalean.

Bitartean, herrian ere kontzentrazioak izan zi-



Xabierko Frantzisko egunean egin zen bilkura berezi hau.

ren egunero-egunero, euskal presoen eskubideak bortxatzen segitzen direla oroitarazteko.

### Paddy Rekaldereen liburu aurkezpena

Espidobaita elkarteak antolatuta, idazle bizkaitar honek bere azken lana aurkeztuko du heldu den hilabetearen 21ean Berako liburutegian. "Whiskey koloreko gauak" izena du liburu horrek, eta Txalaparta argitaletxeak atera du berriki. Heldu den urtarrilean arratsaldeko 7etan izanen da aurkezpena eta solasaldia.

### "Plazatik salarat"

Urtarrilaren 16an,

igandea, kontzertu barrokkoa izanen da Berako elizan. "Plazatik Salarat" taldea ariko da meza ondotik.

### Kulturako aurrekontuei buruzko zuzenketa

Aitzineko ttipi-ttapan kultur aurrekontuen berri ekarki genuen Berako berrietan, eta gaizki ulertu batengatik datu okerrak eman genituen. Izan ere, iazko kultur aurrekontua 8,8 milioikoa izan beharrean 11 milioikoa baitzen. 8,8 milioi taldeei dirulaguntzatan eman beharrekoa zen. Aurtengo aurrekontuetan, berriz, 12,4 milioi estimatu dira kultur tal-

deei emateko, baina aurrekontua 13 milioi ingurutan ibiliko da, beti gordetzen baita zerbait azken momentuko ekitaldiaren bat suertatzen bada ere.

## ▼ flash

### ❖ Futbito

Gabonetako futbito txapelketan Beta taldea izan zen garaile, Baietz-Faidel taldearen kontra 3-1 irabazi ondotik. Dozena bat talde aritu zen elkarren kontra, eta erran behar da jokalaria batzuk ez zutela Eguberrietako izpiritu haundirik erakutsi, sarrera eta keinu itsusiak mordoak bat ikusi baitziren.

### ❖ Ekaitzak ikari ederrak eman zituen

Abenduaren hondaraldera izandako ekaitzak herri guzian ilunpetan uzteaz gain, ikari ederrak eman zizkien zenbait herritarri. Portulena Bordako Jabier Garmendiari, adibidez, arbol bat errepidera erori eta zanpa-zanpa egina utzi zion kotoxea. Berak, ordea, ez zuen kalterik sufritu, ikaria bertzerik.

### Lapurreta Caja Ruralean

Joan den abenduaren 30ean, eguerdiko 12ak aldera, Bidasoa karrikako gurutzean dagoen Caja Rural banketxean ebatsi zuten. Pertsona bakarra sartu zen barnera, pistola batekin langileak mehatxatu eta dirua eskatu zien. Sartu bezain abudo alde egin zuen. Momentu horretan ez zen bezero bakar bat ere banku barrenean.

Bertzalde, bi egun lehenago bertze bi lapurketa izandu ziren herrian. Abenduaren 28ko gauetan, hain zuzen, Bortziri eta Maritx elektrogailu-dendetara sartu ziren lapurrak zerraila bortxatu eta gero. Bortzirin zeuden telefono mugikor guzikiak eta kajako dirua eraman zuten, eta Maritxen, berriz, guttiago ebatsi zuten, kajako kanbioak bakarrik hartu baitzituzten.

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zagarbitu nahi baduzu, deitu!  
 Gu arduratuko gara horretaz.  
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**  
 © 948630155  
**BERA**

© 948 631462  
 Altxate I • BERA  
**Xirgil**  
 Altxate I • BERA

**LESKA**

# Euskal Herriko eta Munduko txapelaren bila hasi da Beti Gazteko sokatira taldea

Otsailen Munduko Txapelketa izanen dute Holandan

AITOR AROZENA

Nafarroan jokoan zeuden lau txapeletatik hiru jantzi ondotik ekin dio Beti Gazteko sokatira taldeak Euskal Herriko txapelketari. Hemen ere, kategoria guzietan lehiatuko dira. Lehen saioa igandean izan zuten Leioan, 600 kilotan. Guzira hamasei talde ari dira kategoria honetan, hiru multzotan banatuak eta multzo bakoitzeko bi lehendabizikoak ariko dira otsailaren 12an Abadiñon jokatu den finalean. Beti Gazterekin batera, Urrestilla, Leioa, Napurrak eta Auzolan taldeak ariko dira hirugarren multzoan, bi txartel horien bila.

Larunbat honetan, urtarrilak 15, 640 kiloko lehen saioa izanen dute lesakarrak Laudion. Hemen hamar talde ari dira (lesakarrak gain, Abadiño, Urrestilla, Txantrea, Orendain, Torrekolanda, Arrizkozubi, Areso, Auzolan eta Napurrak) multzo bakarrean eta lehendabiziko seiak lehiatuko dira Arronizko finalean, otsailaren 20an.

Igande honetan 680 kiloko txapelketan ere hasiko dira Beti Gaztekoak. Pisu handian sei talde bakarrik daude



**Nafarroako Txapelketa, Euskal Herrikoari eta Mundukoari ekiteko pres-taketa gisara hartu dute Beti Gazteko tiralariak. Halere, hiru txapel herri-ratu dituzte.**

Argazkia: Aitor

(Abadiño, Orendain, Areso, Torrekolanda, Altamira eta Beti Gazte) eta ligaxka modura ariko dira hiru saiotan.

640 kilotan bezala, 560 kilotan ere hamar talde daude (Beti Gazte, Areso, Abadiño, Auzolan, Torrekolanda, Badaioz, Goiherri, Leioa,

Imotz eta Altamira). Lehen saioa urtarrilaren 22an izanen dute Eran-dion eta sei lehendabizikoek jokatu dute finala, Lesakan bertan otsailaren 19an. Mutilekin batera, 480 kiloz beheitik nesken finala ere jokatu da egun horretan herrian.

## Munduko txapelketa Holandan

Euskal Herriko txapelketen ondotik, atse-denerako asti handiegirik gabe, otsailaren 24tik 27ra Munduko txapelketan ariko dira herriko tiralariak Holandako Slagharen herrian.

## Haize indartsuak gogor kolpatu ditu bazterrak

Abenduaren 27an izan zen haize indartsuak gogotik kolpatu ditu herriko bazter ezberdinak. Plazan paratutako Eguberrietako pinua erori egin zen. Zorionez, inor ez zuen azpian

hartu. Otsango inguruko pinadi batean hainbat zuhaitz bota zituen haizeak, batzuk errotik eta bertzeak erdi-erditik. Zuhaitz eroriak nonahi ikusten ziren. Tomasenekobordako zerrategiko teilatua hegatu eta bota zuen haizeak, etxe aunitzetako teilak bezalaxe. Eskualde osoa bezala, herrian sei bat orduz argirik gabe egon ginen. Baserri ba-

tzuetan, berriz, kasik hogeitau ordu egon ziren argirik gabe. Suhiltzaileek gogor egin behar izan zuten lan, haizearekin batera euriak ere bere indarra erakutsi baitzuen leku batzuetan: putzuak xukatu, eroritako zuhaitzak baztertu... honelako egoera beldur-garrietan eskertzen da, batez ere, boluntario hauek urte osoan egiten duten lana.

## flash

### San Anton eguna

Heldu astelehenean, urtarrilak 17, ospatuko da San Anton eguna. Hurrengo igandean jende ugari bilduko da Endara auzoko ermitaren inguruan. Bortziriak, Oiartzun eta Irun aldetik ez ezik, Iruñetik ere izanen da bisitarik aurten, San Fermin ikastolakoak 2000. urteko Nafarroa Oinezeko materiala salgai paratuko baitute.



**ANA**  
janaridenda  
Bittiria, 41 • © 948637518  
LESKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESKA

Lurrindenda  
Marian  
ondiberrin  
Estetika  
Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESKA

XATURBETXEA  
ZAKA  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESKA

**BITTIRIA**  
**HARATEGIA**  
© 948 627555  
Bittiria, 43 • LESKA

**ETXALAR**

# Etxalarko Udalak Udalbiltzako partaide izatea erabaki du

Abenduaren 2ko bilkuran onetsi zen erabakia

PELLO APEZETXEA

Iruñean ezagutarazi eta Bilbon onartu zen, 1999ko irailaren 18an, Euskal Herriko Udala eta Udala hautetsien Biltzerra, laburtuta Udalbiltza izen duena. Euskal Herri osoko ordezkari osoa, Euskal Herri osoaren izenean eta Euskal Herri osorako ari nahi du. 1.800 alkate eta zinegotzien orduko bazterrean Etxalarkoak ere baziren. Eta abenduko bere bilkuran Udalak, aho batez, Udalbiltzan sartzea onartu zuen.

### Etxalarlasako bidegurutzeko aterpearen gorabeherak

Jokaera bitxi samarra agertu du Nafarroako Gobernuak, hainbat aldiz galdetu zaion bide bazterrean paratzeko aterpeari buruz. Udalaririk lurrak eta gerorako ba-



### Sarezko Usategi guzietako usazaleen bilkura

Hondarreko urteetan bezala, joan berri den udazkenean ere bildu dira sarek usoa ihizatzen duten hamar usategietako hainbat langile. Oraingoan, Nafarroa Behereko Lekunberrin izan da elkarte eta bazkaria.

lioko duen garrantzia eskatzen baitio. Eta Udalak ez du gisa horretako inolako garrantzarik eskeintzen ahal, Udalak ez baitu agintzen bidean eginen diren aldaketetan, Gobernuak baizik. Lurrik ere bide ondoan berak ez duenez,

aterpea bide arteko berdegunean plantatzea proposatu du Udalak.

### Landaetxeetako bidak moldatzeko laguntzak

Bertziko Partzuergoak jakinarazi duenez, Nafarroako Gobernuak

prest dago laguntza lutzatzeko, landa etxetarako zola emangabeko bideak breaztatu edo zementoztatzeko. Udala konforme agertu da laguntza hori galdetzeko Katton, Añorbe eta Bagoleko Borda bideetarako.

## flash

### Olentzerorekin aunitz jende

Urtetik urtera jendetsuago bihurtzen ari da Olentzeroren itzulia, herrian barrena. Haurrek, gurasoek, eta guraso ez diren gero eta gehiago parte hartzen dute, txistulari eta trikitalariek, Olentzeroren ibilaldian.

### 1999an jaio eta hildakoak

Hiru haur jaio dira joan den urtean, herrian, eta hamaika herritar hil zaizkigu. Herritarren artean edo herritarrekin egindako ezkontzak lau izan dira, beraie-tatik hiru bikote bertan bizi dira.

### Aziendaren kalteak

Landatutako mendi eremuetan azienak sartu eta kalteak eragiten ari dira. Udalak zera pentsatu du: horrela dabilzan azien jabeak herrilurretan bazkatzeko duen baimena aztertzea, eta, hala bada-gokio, kentzea.

**Lanchas**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735

**HERRIKO OSTATUA**

**Jatetxea**

© 948635290 **ETXALAR**

**Oporrak direla eta urtarrilaren 10etik 26ra itxita. Barka itzazue eragozpenak**

**«USOA»**

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena

Tfnoa: 948635214

**ETXALAR**

**KAYULA**

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 **LESAKA**

© 948 63 75 58

**HARITZPE**

948635235  
948635038

**GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK**

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - **LESAKA**

**Pinturak eta barnizak**

☎ 689 042 671 • 948 637556

Bittiria, 37 • **LESAKA**

**Mannel Zamorano**

**IGANTZI**

# Abudo jakinen da zeinek beteko duen administrari lanpostua

Haurrek bisitak egin dituzte aurten adineko eta ezinduen etxeetara

**OSKAR TXOPERENA**

Herrikoetxean sei hilabetez administrari lanetan aritzeko probak aste honetan ziren hasitekoak, euskarazko probarekin, hain zuzen ere. Hogei lagun baino gehiago izan dira izena eman dutenak, eta azkenean aukeratua suertatzen denak, lehen aipatu dugun bezala, Jaione Seinen hutsunea beteko du urte erdiz. Euskarazko probaren ondotik, informatika eta proba teorikoa ere izanen dituzte.

## Baratzondoko mus eta partxisa

Abenduaren hasieran jokaturako zahar-etxeke mus eta partxis txapelketen irabazleak hauek izan genituen: Musean, Marcial Telletxea eta Antonio Guerra, eta partxisean

Juan Sein eta M<sup>a</sup> Paz Petrikorena senar-emazteak. Biltokin ere itxi dute dagoeneko izena emateko epea, eta, aditu dugunez, motel xamar joan dira apuntatzeko lanak.

## Eguberrietako zareak

Aurtengo eguberrietan bi zare bagenituen herrian zozketatzeko, bata Abesbatzak aspaldian ateratzen duena, eta bertzea, eskolako haurrek lehendabiziko aldiz prestatutakoa. Aunitzetan komeriak izaten dira luzaroan zenbaki saridunak agertzen ez direlako. Oraingoan, ordea, ezin gauza bera erran, biak zozketatutako egun berean agertu baitziren. Abesbatzarena Josetxo Arburua Martikorenari tokatu zitzaion, eta eskolakoa Iñigo Migelenari.



## Eguberrietako ospakizunen ondotik, urte berriari ekin diote haur eta helduek

Hainbat ekitaldi izan dugu aurtengo eguberrietan ere. Agertutako argazkia iazkoa baldin bada ere, horrelako olentzero politak ikusi ahal izan ditugu aurten ere, egun guziz herri eta baserrietan barna eskian ibili ondotik. Abenduaren 29an ere haurrak izan ziren protagonistak, etxeetan dauden adineko eta ezinduei bisita egin baitzieten eguberrietako kantak eskaintzeko, urte gehiena etxetik atera gabe pasatzen dutenek ederki estimatu duten bisita.

Argazkia: Oskar Txoperena

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESAKA

**KULTUR ETXE AURRIAN**  
BERRAZKUN

**BERRAZKUN S.L.**  
Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak  
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**PIKABEA**  
Molinero drogerian galdetu  
*pinturak*  
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

**ATM S.A.**  
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**LESAKA**

**ARANTZA**

# Euskal Herriko Udal Hautetsien Biltzarreko partaide egin da Arantzako Herriko Etxea

Eliza garbitzen dutenek eskurtsioa egingen dute Erriberara abuztuaren 31n

ELIXABET ETA GARBIÑE

Udalbiltzan, Euskal Herriko udal hautetsiak udal funtzionamenduan oinarritutako euskal instituzio nazionala erakitzeke nahiarekin sortu den erakunde honetan sartzea erabaki du Udalak.

Erakunde honen helburuak; Euskal Herria nazio dela aldarrikatzea, egitura politiko izatea, erakunde iraunkorra izatea, herrialde guzietako udalerriekin harremana eraikitzea eta Euskal Herria nazio bezala Europan jardutea dira. Lehen aipatu bezala, Arantzako Udalak bertako kide izateko borondatea agertu zuen eta erabaki honen berri Udaltzari eta herritarrei ematea.

**Errege eguna**

Urtero egiten den gi-



**Herriko lehen festibala arrakastatsua suertatu zen**

Abenduaren 18an egin zen herrian lehendabiziko festibala. Soziedadean afaldu ondoren, bertako terrazan egin ziren antzerki eta kantaldiak, bortz agerpen guzira. Honen ondotik, sortu berria den eta oraindik izenik ez duen herriko taldeak –argazkian– bere kantuak eskaini zituen. Gaua akautzeko eta dantzatzeko, Goizuetako Xapo taldeak jo zuen.

sara, aurten ere Errege egunean mendi mutilen bazkariak ezagutzen dena egin zen Aterpen. Aitzinetik izena emana zuten guztiak bertan bildu ziren ederki bazkal-

tzera. Bazkalondoan, Lizaso eta Egaña bertsolariak kantari aritu ziren eta Leire eta Olatz herriko trikitilariak alaitu zuten arratsaldea. Aizkora apostua ere izan

zen noski: Donato Larretxea herriko bi aizkolariren kontra aritu zen.

**Rafa Errandonea**

Lehen ere agertu di-

ra lerro hauetan herriko pilotari honen nondik norakoak, baina afizionatu mailan. Oraingoan Rafa Errandonea profesioletara pasatu dela dugu aipagai. 21 urte dituen aranztar hau Garfe enpresak fitxatu du eta debuta hilabetearen erdi aldera egingen du.

**Garbiketa lanak**

Joan den urtean bezala, aurten ere Rosario Agestak egingen ditu Herriko Etxea, eskola eta medikuaren etxeko garbiketa lanak. berea izan da jasotako eskaintza bakarra eta berretzat izanen da anpostua.



**PAGOLA TXISTORRAREN IZENA**

© 948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
BERA

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
© 948631106  
BERA

**Boda eta banketeak ematen dira**

**LEGARRA**  
Legarra, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

**MARTIKO**  
*Gure baserrietako produktuak*

© 948 630 700 • Fax 948 631 213  
Zalain Poligonoa, BERA

**BORTZIRIAK**

**MALERREKA**

# Bertso Eskolaren bigarren taldekako lehiaketa abiatu da

Finala urtarrilaren 28an burutuko da Lesakako Arrano elkartean

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso Eskolaren bigarren taldekako lehiaketa abiatu da larunbat honetan Berako Gure Txokoan egindako saioarekin. Joan den urteko eredia segituz, hiruna bertso-lariko taldetan banatu dira partehartzaileak eta guzira borts talde lehiatuko dira. Gisa berean, afarien inguruan edo osatu giroan egingen dira saioak, jende gehiago erakartzeko intentzioarekin.

Berako lehendabiziko kanporaketan A taldea (Juan Mari Lopez, Jose Juan Zubieta «Etxabe» eta Ekhine Etxepeteleku) eta B taldea (Estitxu Arozena, Xabier Terreros eta Erika Lagoma) aritu ziren, nor baino nor.

Hurrengo kanporaketa ortzirale honetan



Manolo Arozena eta Xabier Silveira E taldean arituko dira. Artxibokoa

izanen da, urtarrilak 14, Igantziko Biltokian. Lehenik afaria izanen da eta gero saioa C taldea (Bittor Elizagoien, Julen Zelaieta eta Alaitz Rekondo) eta D taldearen artean (Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez eta Oskar Goñi).

Larunbatean, urtarrilaren 15ean, azken kanporaketa egingen da arratseko 8etatik aitzinera Lesakako Saski-Berri ostatuan. Bertan, E taldea (Xabier Silveira, Manolo Arozena eta Saioa Mitxelena) sartuko da lehian, aitzineko

bi kanporaketetan garaile izan diren arteko puntuaziorik baxuena duen taldearen aurka. Bortzirietako bertso eskolak antolatutako txapelketa honen finala Lesakako Arrano elkartean egingen da urtarrilaren 28an.

## Maite Bertiz garaile ipuin eta bertso-paper lehiaketan

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak hirugarren urtez antolatutako ipuin eta bertso-paper lehiaketaren sariak banatu ziren abenduaren 15ean Doneztebeko eskolan. Garaile nagusia Maite Bertiz, zortzi urteko Beintza-Labaiengo neska izan dela erraten ahal da, beretzat izan baitziren lehendabiziko saria bai ipuin baita bertso-paper lehiaketan ere. Bertsoetan «Negua» izenburua jarri zion bere lanari eta ipuinetan, «Basoko familia». Bertso-paperetan bigarren saria ere Beintza-Labaienera joan zen: Oihana Mindegia irabazi zuen, «Nire baratza» lanarekin. Ipuinetan, bigarren saria Oihane Elizalde eta Alazne Untxalo iturandarrentzat izan zen, «Jatetxeko sukaldari jatorra» lanarengatik. Sariak banatu ondotik txokolatea jan zuten.

**EKAITZA kafetegia**  
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA  
Lagunekin elkartzeko toki egokia  
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

**SAROB**  
okindegia  
**SANDERS** Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - **BERA**

**BEINTZAko OSTATUA**  
© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**CONSTRUCCIONES SALDIAS**  
**ETXEGINTZA OROKORRA**

Teilatu eta fatxada berritzetan  
espezializatuak

Pintura lanak eta gremio guziak

☎ 607 434397 • 619 058264 • **LEGASA**  
**NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA**

**DONEZTEBE**

**Aurten ez da emanaldirik izanen Leku-Eder zineman**

Aurten ez da zine emanaldirik izanen Leku-Eder zineman. Kontu jakina zen zinemak diru galerak sortzen zituela Herriko Etxean. Lehendabiziko denboraldietan, pelikula berria ekartzen zuten astero, gero hamabortzean behin ekartzen hasi ziren eta orain, momentuz, desagertu egin da. Izan ere, aunitz dira herriko zinema baten arazoak: edozein pelikula berri erosteko guttienez 200.000 pezetan ordaindu behar dira eta hori nolabait estaltzeko –langileak edo kalefakzioa bezalako gastuak kontuan hartu gabe– zinea bete egin behar da aunitzitan. Haserako asmoa kultur zerbitzua eskaini eta Udalak defizita bere gain hartzea zen. Gaur egun, gastua sobera handia zen Herriko Etxearentzat.

**Diska karrikaratu dute Mendi eta Hendaiako Entzun abesbatzek**

«Bi herri ibai bat» izenburua jarri diote lanari

**PATXI IRIARTE**

Urte batzutan elkarlanean aritu ondotik diska karrikaratu dute herriko Mendi eta Hendaiako Entzun abesbatzek. «Bi herri ibai bat» izenburupean hamalau kantu bildu dituzte.

Bi abesbatzek 1997ko ekainean egin zuten elkarrekin topo lehendakoz. Entzunkorak emandian eskaini zituzten Doneztebe Mendi abesbatzaren bisita itzulian 1998an elkarrekin ziren Poldo Viana do Casira eta hiru kantuakaini zituzten galen barna. Entzuntzen arteko lotuak dotzen doaz 1999ko abuztuan Bretainan kantuak

kaini zuten bi taldeek. Joan den udan bi kontzertu eskaini zituzten Doneztebe eta Hendaiako bi taldeek elkarrekin abestu zituzten kantu guztiak. Bigarren kontzertua grabatu egin zen eta pixkanaka itxura ematen diote, zuzeneko diskan hiru kantuak grabatu zituztenak.

«Urte hauetako harremanaren soinu oroitzapena uzteko beharra sentitu genuen» diote bi abesbatzetako kideek.

**MIKROFONO BAKARRAREKIN EGINDAKO GRABAKETA**

Grabaketarako mikrofono bakarra erabili zuten.

soinuak, barne- Iparraldeko Agorila disketxera igorri zuten eta hemendik lana oso-osorik argitaratuko zutela baieztatu zuten.

CD eta kasette formatuan karrikaratu da diska eta Euskal Herri osoko edozein dendetan erosten ahal da, bai Mendi abesbatzako diska ere. Azarotik Jorge Iribarren dobetarrak egindako diska aukera ageri da –argazkian–. Kantuei dagokienez, lehendabiziko zatian, musikari ezberdinen elizkantuak abestu dituzte. Bigarren zatian, berriz, euskal kantu herrikoiak sartu dituzte. Musika Eskolako ikasleak (Mendi eta Hendaiako ikasleak), «Agurak» abestiarekin abestu zuten.



**Ibarrola Martzaria**  
**Harriak eta erretza**  
 0-14 urte  
 Pasaia kalea 6 - Donostia  
 48100

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**Lesaka-Donoztebe**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**MALERREKAKO MANKOMUNITATEKO**

**ZERBITZU OROKORRAK BEHIN-BEHINEAN ARITZEKO EUSKARA TEKNIKARI BAT OPOSIZIO BIDEZ HARTZEKO DEIALDIA KARRIKARATU DU.**

**HONEN GAINEKO INFORMAZIOA MALERREKAKO MANKOMUNITATEAN.**

**Tel.: 948 45 17 46**  
**948 45 17 70**

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>  
 E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)

**Parrokia 11**  
**Tfnoa: 45 01 12**  
**DONEZTEBE**



**MALERREKA**

# 53 urtetik goitiko pilotariei desafioa luzatu die Elgorriagako Bautista Iruruetak

Zubietako iñauteriak baino lehen eman behar da erantzuna Maylin ostatuan

TTIPI-TTAPA

Elgorriagan sortu eta Donezteben bizi den Bautista Iruruetak pilota desafioa luzatu dio Bidasoaldean (Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Bertizaranan) bizi diren pilotariei. Bautista 1946ko apirilaren 18an jaio zen eta hori datu adierazgarria da, desafioa urte horretakoak edo zaharragoak direnei egin baitie, eskuz esku jokatzeko. Bertze baldintza bat ere eskatzen du: «Profesionalak izandakoak ere ez dituz sartzen apostuan, horiek bertze maila batekoak baitira, nik ez dut horrelako kategoriarik».

**DIRURIK EZ, APOSTU GIROA BAIZIK**

Dena den, apostuan ez litzateke dirurik jokatu, «gosari bat edo tragoak bartzerik ez eta bidenabarkoan, gorpuzari ere ongi etortzen zaio kirol pixko bat egitea». Izan ere, Bautista Iruruetaren asmoa, garai bateko desafio, norgehiagoka eta erronka

giroa berreskuratzen saiatzea da. «Hori galduta da eta pena da, lehen gisa honetako apostuak maiz xamar egiten baitziren. Ameriketako euskaldunak kasik hemen baino giro hobean elkartzen ginen. Kultura kontu hori, pilota eta dantza hemen baino gehiago kontzen dela uste dut».

**BERROGEI URTEREKIN ETA AMERIKETAN PILOTAN HASITAKOIA**

Izan ere, Bautistak hogeita hamar urte emanak ditu Ameriketako artzain eta duela bortz urte itzuli da Malerreka. Berak dioenez, Estatu Batuetan berrogei bat urte zituela hasi zen pilotan jokatzeko. «Lehen, artzain ginelarik mendian egon behar genuen eta ni zahartuta hasi naiz pilotan aritzen, beti ere afizionatu mailan. Estatu Batuetan txapelketak egiten dira, lehenbizi estatu batekoak elkarren kontra eta gero udan txapelkunak, estatu arteko txapelketan. Gauza polita izaten da. Horretaz gain,



**Bautistak Zubietako iñauteriak baino lehen jokatu nahiko luke desafioa.** Argazkia: Karmele

noiznahi desafioak egiten genituen. Ohitura hori hemengalduta da».

Kontuak honela, Iruruetak pilota desafioko kartelak jarri ditu Zubietan, Sunbilla eta Oronoz-Mugairin, baina ez du erantzunik jaso. Pilota partidua jo-

katzeko plaza erabaki gabe dago oraindik: «Nere gisakoa baldin bada edozeinetan, baina hobea bada, ikusiko dugu». Horretarako prest dagoenak Maylin ostatura deitu behar du lehenbailehen, 948 451945 telefonora.

**Jose Ignacio Ariztegik hartu du hilabete batez Iturengo Herriko Ostatura**

IBAN ISASI

Abenduaren 27a Herriko Ostatuaren enkanterako eskaintzak aurkezteko azken eguna zen. Bi proposamen aurkeztu ziren. Horietako bat baliorik gabe gelditu da. Beraz, Jose Ignacio Ariztegiren eskurtan dago orain ostatura eta Urtezahar arratsetik Iñauteriak pasatu arte irekia egonen da egunero. Ondotik itxi egonen da berriro, Udalak bertan berrikuntza lanak eginen baititu. Gero, berriz enkantean aterako du Herriko Etxeak.

**Landernea ostatura**

Ostatura berria ireki dute Landernea etxeko sotoan. Lehendik ere hostal gisara erabiltzen zuten etxe hau eta gelak eskaintzen zituzten. Ramon Urrozek darma ostatura eta duela hi-



**TXOTX** denboraldiaren irekiera  
(Iñaki Perurena eta Beñardo Irastorzak irekiko dute)  
**Urtarrilaren 15ean Bertso-afaria**  
Maialen LUJANBIO eta Jexuxmari IRAZUekin.

SAGARDOTEGIKO MENUA + KAFAA, KOPA eta PUROA:  
**3.300 Pta**

Txartelak eskuratzeko deitu 943 623130 telefonora

**ETXANDI TXOKO jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

**ITUREN**  
☎ 948 450 491

**GOIZUETA**

# Hamalau milioiko anbulantzia herrirako

Boluntario taldeak erabiliko du eta aurrerapen guzietan hornitua egonen da

**ESTEBAN AROZENA**

Mercedes Benz Sprinter markakoa izanen da herriko anbulantzia, horrelaxe erabaki baitzuen abenduaren 28an Herriko Etxean bildutako tekniko eta kontzejalez osatutako kontratazio-mahaiak. Bi etxek erantzun zioten udalaren deialdiari, Planchasteria Bergalana enpresak Fiatekin eta Emergencia 2000 goian aipatutakoarekin. Lehenengoa, ia bi milioi pezeta merkeagoa bazen ere, teknikoek bi-

garrenagoaren aldeko aholkua eman zuten, bai ibilgailua bera, baita ekipamendua ere hobea goak direlako beraien ustez. 4x4 trakziodun Mercedes Benz honen txasisak 6.235.000 pezeta balio du eta karrozeriak eta ekipamenduak beste 7.930.000 pezeta, 14.165.000 pezeta guzira. Bederatzi milioiko subentzioa emanen du Nafarroako Gobernuak eta gainerakoa Udalak ordaindu behar du. Erabili berriz, propio horretarako prestatzen ari den bolondres



## Telleri kanpina itxi du Nafarroako Gobernuak

Mota horretako instalazioentzat ezarriak dauden baldintza batzuk betetzen ez dituelako Telleri kanpina itxi du Nafarroako Gobernuak.

gazte talde batek egingen du. Azkenik, hurrengo maiatzerako anbulantzia herrian izanen denaren hitza eman du saltaileak.

### Presoen aldeko ekitaldiak

Presoak Euskal Herri ratzearen aldeko ekitaldiak etengabeak dira herrian. Baterak deitutako kontzentrazioak hamabostero egiten di-

ra. Hurrengoa, 14ean, ostiralean, izanen da. Honetaz gain, bi baraualdi burutu dira dagoeneko, bat Urtezahar gauek Urteberri egunera gainera.

Bide beretik jarraitzeko erabakia hartua du Herri Asanbladak. Horrela, hamabostero egingen diren itxialdi-baraualdietan parte hartu nahi dutenek izena eman ahal izateko zerrendak

jarriak daude kafetegian eta Urrutinea tabernan.

### Antzerkia larunbatean

Leitzako antzerki taldeak bere obra berria aurkeztuko du zentroan hurrengo larunbatean, hilak 15, gaueko 8etan. Egun berean, arratsaldeko 6,30etan Umore Onan, Oinarriak erakundeko kideak egonen dira.

**ARESO**

# Eguberrietako ospakizunetan parte hartu dute haurrek

Jon eta Jaione bigarren Euskal Kantu txapelketan

**JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR**

Eguberrietako garaia bukatu da dagoeneko eta milurte berrian sartu gara, baina gu bezalakoentzat eta herrian bereziki, ez da deus aldatu. Betiko kontuak eta kantuak daude.

Umetxoak dira benetan gozatu dutenak: Olentzeroren etorrera,

Bilboko PIN Parkea eta Guggenheim Museoa bisitatu zuten abenduaren 28an. Egun berean, adinekoak bisitatu zituzten etxez etxe, beraien abestiak eta oroi-garriak oparitut. Bi bideo emanaldi ikusgai izan dituzte eskolako gelan: «El Zorro» eta «Mi amigo Joe».

Beste bi egunetan,

umeen jokuak izan dituzte, Euskara Zerbitzuaren eskutik.

Erregeak ere etxetik ibili ziren, bere opariak banatzen.

### Jon Pellejero eta Jaione Olazabal bigarren Euskal Kantu txapelketan

Donezteben eginda ko Nafarroako Euskal



Jaione Olazabal eta Jon Pellejero «Non dire?» kanta abestu zuten Donezteben. TTIPI-TTAPA TB

Kantu txapelketaren finalean, bikoteka bigarren postua Jon Pellejero

eta Jaione Olazabal eskuratu zuten, «Non dire?» abestiarekin.

**LEITZA**

# Guatemalan hezkuntza proiektua gauzatu nahi du Bego Zestau leitzarrak

Dirulaguntza kanpaina burutzen ari da herriko gaztea

JOSEBA AZPIROZ

Guatemalako hiri batean bi hilabetez egon ondotik, bertan bizi diren famili pobreen seme-alabei hezkuntza finantziatzeko proiektua ekarri du Bego Zestau leitzarrak. Proiektua lau eta hamar urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta hiru fase izanen ditu: lehenik, ikasketak hasi aurretik 30 haurrei osasun azterketak egiten zaizkie, urtero-urtero. Gero, hezkuntza plana etorriko litzateke, ikasturteak dakartzkien gastuak finantziatzeko eta, azkenik, familia-plangintzarako plana. Honekin, «*katea pixko bat hautsiko litzateke: 4-6-8 haur eduki eta soldata baxuak dituztenez (10.000 pezeta hileko) haurrak lanera bidaltzen dituzte*» dio Begok.

Proiektuak sei urtez luzatuko da, Lehen Hezkuntzak irauten duena. Aurrekontu osoa 24 milioi ingurukoa, baina urteko hiru milioi besterik ez dira (hiru mila pertsonen urtean mila pezeta jartzearekin nahi-



## Ihauteriak hilbeltzaren 22tik 25era

Gainean dugu atsoguratuena besta. Ohitura segituz, larunbatean herrian egiten den eskearekin hasiko dira ihauteriak. Igandean herrian izanen da besta eta astelehen eta asteartean baserri auzoetan.

Artxibokoa

koa izanen litzateke. Dirulaguntza Nafarroako Aurrezki Kutxaren zerbaki honetan egiten ahal da: 2054 0024 78 912335971.8 (Bego Zestau-Guatemalarako laguntza).

## Etxeak berritzeko dirulaguntzak

Etxeen berrikuntzarako dirulaguntzak bideratzeko Leitzaldeko bulegoan, 71 espediente berri tramitatu dira

1999. urtean. Bulego honetan larrun, Lekunberri, Araitz, Betelu, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko eskaerak tramitatu dira. De-

netara, 288'5 milioi pezetako obrak egin dira, 104'2 milioi pezetako prestamo edo maileguak lortu dria eta 63'8 milioiko dirulaguntzak.

### Etxeak berritzeko dirulaguntza tramitazioak 1999an

Herria	Eskaerak	Aurrekontua	Maileguak	Dirulagun.
Arano	1	27.686.880	8.075.340	1.245.909
Areso	4	14.230.068	0	3.394.693
Goizueta	6	15.854.387	9.851.087	2.802.561
Leitza	33	76.948.450	19.177.590	15.448.911
<b>Denetara</b>	<b>44</b>	<b>134.719.785</b>	<b>37.104.107</b>	<b>22.892.074</b>

## flash

### Euskal presoak Euskal Herrira

lemapean Udalak abenduaren 31n antolatutako manifestazioan, berrehun lagun bildu ziren. Beste hainbat ekitaldi egin dira presoek eskubideen alde.

### Leitza eta Ezkurrako gainaren arteko errepidea

Nafarroako Gobernuak, Leitza eta Ezkurrako gainaren arteko errepidea berritzeko proiektua konkurtsora atera du. Proiektuak sei hilabete barru bukatua egon beharko du eta gehienez ere 9'8 milioi pezetako gastua izanen du.

## GAZTAÑAGA TABERNA

**BOKATAK eta PINTXOAK**

Elbarren, 55 ☎ 948 510072 • LEITZA

**TORREÁ TABERNA**  
Euskal presoak etxera  
Ihauterietan mautua eta borroka  
Mikel Deuna | ☎ 948 610909 • LEITZA

**TABERNA**

## ARAKINDEGIA JATETXEA

- Menua eta karta
- Garaien garaiko otorduak

Elbarren 42 • ☎ 948 510052 • LEITZA

**MUSUNZAR TABERNA • HOSTALA**  
Elbarren 14  
☎ 948 510607 - 948 510475  
**LEITZA**

Huarte Gotzaia 19  
☎ 948 510352  
**LEITZA**

**BAZTAN**

# Iaz nabarmendu zirenak saritu ditu Udalak

Cesareo Soule, Felipe Biguria eta Baztango Dantzariak

TTIPI-TTAPA

Beraien eginkizunetan gehien nabarmendu zirenak baztandarrak saritu zituen Urtexahar egunean Balleko Udalak. Cesareo Soule Arizkongo eskulturgilea, Baztango Dantzariak eta Felipe Biguria udal pilotalekuko arduraduna

na izan dira sariak jasotzeko meritu nahikoa egin dutenak, Udalaren arabera.

Cesareo Soule eskulangile eta eskulturgile arizkundarrak, Pariseko Eskultura Lehiaketan lortu zuen bigarren sariagatik jaso zuen Udalaren oroigarria -Balleko harmarria-.



Udal ordezkariak eta saridunak beraien oroigarriekin.

Argazkia: Ondikol

Baztango dantzariak Galeseko Llangollen herriko Nazioarteko Eisteddfod Dantza lehiaketan lortutako hirugarren sariagatik ja-

so zuten berea. Gurutze Goñi eta Irantzu Izetak bildu zuten Baztango harmarria, taldearen ize-nean.

Hogeita bortz urtez

Elizondoko udal pilotalekuaren ardura izan duen Felipe Biguriari ere esker ona adierazi zion Udalak, erloju bat oparituz.

# Pirineotako autobidea solasgai Erratzuko soziedadean hilaren 14an

Kultur elkarteak antolatutako kultur egunak honela akituko dira

TTIPI-TTAPA

Autobiderik ez! izenburupean, Pirineotako autobideari buruzko mintzaldia emanen du LEIA erakundeak ortzilerian, hilbeltzak 14, arratseko 7,30etatik aitzinera Erratzuko soziedadean. Gisa honetara akituko dira Erratzuko Kultur elkarteak, inolako dirulaguntza publikorik gabe, baina Baztango Gazte Asanblada, Etxelebertzeko Txokoa elkarteak, Ertzuin Guraso elkarteak, Xorroxin Irratia eta Xa-



Erratzuko kultur elkartearen logotipoa

loa Telebistaren laguntzarekin antolatutako Kultur Egunak.

Ekitaldi aunitz izan dituzte Erratzun egu-

notan. Abenduaren 24an Olentzeroari ongi etorria emateko txalaparta eta kirikoketa jo zuten. Hilbeltzaren 2an,

taldia izan zen soziedadean. Haseran Kubako kantaria aritu beharra zen, baina ezin izan zuenez etorri, Petti aritu zen. Hilbeltzaren 4a zinema eguna izan zen. Arraldean, haurrendailma eskaini zen eta arratsean, «Txotx», «40 ezetz» eta «Altsasu 1936» laburmetraiak. Orain arteko ekitaldiak arrakastatsuak izan direnez, bertze horrenbertze espero da ortzileriko mintzaldiaz.

**flash**

**Udal langile berriak**

Jose Mari Zelaia Sarratea izanen da Udaleko zerbitzu anitzetarako langilea, lehiaketan puntuaziorik altuena lortu baitzuen. Jesus Oskoz Sarrateak eta Jose Francisco Iturralde Elizetxek beteke dituzte konterseje lanpostuak.

**Iratxe elkarteak dirulaguntza**

Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak lanean segituko du aurten ere Baztanen duen bulegoan. Horretarako 36.000 pezetako dirulaguntza eman dio Balleko Udalak.

**MENDI OSTATUA**  
Santiago 25 - © 948 580313  
ELIZONDO

**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO  
Galarza

**MENDIALDE Jatetxea**  
AMAIUR • © 948453060

**BAZTAN FUNERARIA**  
EHORZKETA ZERBITZUAK  
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
TRASLADOAK  
Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

**BAZTAN**

# Mende batez Txilera gan diren baztandarren historia bildu dute

Agustin Otondok eta Patricio Legarragak idatzi dute liburua

TTIPI-TTAPA

Baztandarrek beren historiaren zati garrantzitsu baten berri izanen dute, Ameriketako emigrazioaren inguruko liburu baten aurkezpenarekin. Mende honetan Txilera gan diren baztandarren berri ematen du «*Emigración a Chile del valle de Baztan en el siglo XX*» liburuak. Erratzuko Epelmendian sortu eta Txilen bizi den Agustin Otondo Dufurrena eta Txilen sortu arren arbaso nafarrak dituen Patricio Legarraga Raddatz dira liburuaren egileak eta Nafarroako Gobernuak argitaratu du. Ikerketa egiteko, 1890. urtetik 1977ra Txilera gan ziren 185 baztandarren harat-honata aztertu dituzte. Liburuaren 200 orrialdetan, larogei familien datu historikoak eta genealogikoak ematen dira. Azalean Javier Ziga margolariaren lan bat ageri da eta haserako zatian Baztango geografiaren eta historiaren azalpena egiten da. Gero heldu da emigrazioaren



zatia eta, azkenik, zenbait harmarriei buruzko kapituluak ageri da. Alde grafikoari dagozkionez, emigranteen argazkiekin batera, bixaitxartelak edo okindegien argazkiak azaltzen dira. Sektore honetan aritu ziren eta ari dira Txilera joandako baztandar gehienak. Egileen erranetan, Arizkungo Fermin eta Jose Borda Barazabal izan ziren Txileko lehen okin baztandarrak eta gero etorri ziren ondorengoak. Aitzinako kontuak argitaratzen dituen liburuaren aurkezpen-

an, punta-puntako teknologiarik aintzindue-na erabili zen: aurkezpena Nafarroako Jauregian egin zen Iruñean, baina liburuaren egileek Txileko Nafarroako Etxetik –hameka mila kilometrotara– kazetarien galderei erantzun zieten euskaraz eta gaztelera, bideokonferentzia bati esker. Iruñean ziren Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta Patxiku Oiartzabal, Baztan Balleko alkatea. Agustin Otondok adierazi zuenez, «*liburua lan luze baten ondorioa da.*



**Iruña-Txileko prentsaurrekoa eta liburuaren azala.**

*Txilera gan ziren baztandarren kopuru zehatza zenbatzea zaila da, baina mende honetan 185 inguru izan dira.*

**flash**

**Zahar Etxetik erretiratuen egoitzara**

Balleko Udalak Elizondoko Zahar Etxea moldatu nahi du, jubilatuen egoitza bertan egiteko. Dirulaguntza eskatu zaio Nafarroako Gobernuko Ongizate, Kirol eta Gaztedia departamenduari.

**Galipota egiteko planta Almandozen**

Baztan Balleko Junta Generalak Almandoz inguruko herri lurretan galipota egiten duen planta bat ezartzeko baimena eman zuen abenduaren 27ko batzarrean. Bizkaiaiko Iurreta herriko Probisa enpresak eskatu zuen planta hori ezartzeko baimena eskatu zuen. Galipota, Almandozko laugarren karrileko eta Zozaia-Donztebe errepide berriko lanetan erabiliko da. Lan hauek akitzean kenduko da. Junta berean, Gartzaiango uren araudia onartu zen. Iruritako kanposainduaren funtzionamendu arauak, aldiz, gehiago aztertu eta bertze baterako utzi zituen batzarrak.

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**MERKEALDIAK**  
*ERNE!*

*Denboraldiko arropak merke-merke*

**ÑAUTERIETAKO TELETAN AUKERA**  
**ESKULANERAKO MATERIALAK**



**BAZTAN**

**ALTZARIAK**  
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

**BAZTAN**

**Presoen aldeko jaialdia egin zen larunbatean**

Baztango Herri Ekimenak, Balleko Udalaren laguntzaz antolatutako eskual presoen eskubideen aldeko jaialdia egin da larunbat honetan Elizondoko pilotalekuan. Etxerat! lelopean antolatutako ekitaldi honetan, Baztango hainbat talde aritu ziren: Baztango Dantzariak, txalapartari eta kirikoketariak, Amaiurko kantariak, Gorramendi 10, Pottoka, bertsolariak, akordeolariak, txistulariak... Xorroxinek jaialdia aurkezteaz gain zuzenean zabaldu zuen. Gainera, bideo erraldoia erabili zen Xalao Telebistari esker jaialdia zuzenean ikusteko. Aipagarria da jaialdia iragartzen zuen kartela egiteko Baztango hainbat margolarik hartu duela parte.



etxerat!!

**ARGIBEL OPTIKA**

© 948 581 391  
Santiago 62 - ELIZONDO

**Aukera zabala**

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

**URDAZUBI**

**Milurte akabailarekin bat eginez Olentzeroa atera da lehen aldiz**

Botoilendako zaborrontziak jarri dituzte

MARGARI ETA KORO

Milurtea ospatzeko lehendabiziko aldiz olentzeroa egin da Urdazubin. Olentzero biziduna izan da, gainera, eta bere orga gainean opariak ekarri ditu, herriko neska-mutikoen artean partitzeko.

Zugarramurdi lehendik ere etortzen zen olentzeroa, baina aurtien lehen aldiz biziduna izan da. Jende aunitz bildu zen bi herrietan eta arrakasta handia izan zuen. Opariak partitu zituzten, pozez txoratzen zeuden haurren artean.

**Botoilendako edukiontzia**

Urdazubin botoilen eta bidrioaren zaborrontziak jarri dituzte. Neguan bi hilabetarik behin pasatzen dira biltzera eta udan hama-



Olentzeroa lehen aldiz ailegatu da Urdazubira. Ez al da azkenekoa izanen!

bortzean behin pasatuko dira bilketa-enpresako kamioiak.

Dagoeneko kartoia biltzeko enpresa batekin ere sinatu du kontratua Urdazubiko Uda-

lak. Baionako Redmat enpresakoak etorriko dira kartoia biltzera.

**Haize bortitza**

Inguruko herrietan bezalaxe, abenduaren

27ko haize zirimola ikaragarriak argirik gabe utzi zituen Urdazubi eta Zugarramurdi. Herrietan eta inguruko mendietan nabaria zen haizearen eragina.

**Maderas GOMEN**

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENZIA

- Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO

**SARA**

# Paul Dutournier zenaren omenez ezarri oroit-harria lekuz aldatu dute

Bidearen bertze aldean emana dute orain

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

1994ean Lizuniagako bidean Paul Dutournier zenaren omenez ezarri oroit-harria bidearen bertze aldean emana izan da joan den hilabetean. 1995ean Herriko Kontseiluak lekuz aldatzeko erabakia hartu zuen, baina joan den urtera arte goaitatu behar izan dugu aldatzekaren ikusteko.

Orain arte, oroit-harria mugaz gaineko hitzarmenen izenpetzeko aspaldi baliatzen den mahain-harriaren ondo ondoan kokatua zen, eta molde batez, «*bi monumentu*» horiek elgarretarik hurbilegi izanez, ez ziren behar bezala baloratuak.

Hemendik aitzina, baktotxa bere lekuan, behar bezala preziatzen ahalgo dira.

## Ekaitz bortitzaren eragina Saran

Urte hondarrean izan ekaitz bortitzak eragina izan du bertze toki ainitzetan bezala Saran ere. Izgarrizko haizeak han hemenka arbolak eta bertze botatzeaz gain, kalteak egin dituzte gaineko eskolako teitlatuan, baita polikiroldegiko berinetan ere, etxe frangotan bezala funtsean. Bertzalde, he-



## Presoen aldeko elgarretaratzeak

Abenduaren 31n, urtats gaua kari, Sara eta inguruko herrietako ehun bat presuna bildu ziren herriko plazan, euskal presoak gogoan, eta karia hortarat, «Euskal presoak Euskal Herrira» lema zeraman banderola haundi bat hedatua izan da errebotean. Jakin dugunez, hemendik aitzina, bi astetarik egingen da elgarretaratze bat, baina aldiro herriz aldatuz. Ondorioz, ondokoa, urtarrilaren 14ean egingen da Zugarramurdin, arratseko 7etan.

rritar ainitz argirik gabe egon ziren denbora batez, baina bertze leku batzuetan ez bezala, dena normaltasunera itzuli da frango fite.

Hala ere, zorionez, ekaitzak ez du kolpatu larririk egin gure herrian. Gaitzerdi, ikusten delarik zer izigarrikeriak gertatu diren Frantzian gaindi!

## Pleka trinketeko mus txapelketa

Abenduaren 10ean, Pleka trinketeko biga-

rrin mus txapelketa bururatu zen. Final handiko irabazleak Aguerre Etienne "Pottok" eta Saint Martin Iñaki izan ziren, Dutournier Henri eta Xapartegi Xanoren kontra; final ttikian Dibar senar-emazteak garaila, Bats Serge eta Amorena Jean Filipe aurka. Karta alde batera utzi eta muslariek xerrikumea afaldu zuten; gaua bururatzeko berriro musean aritu ziren. Argi xirrintxa arte omen!

## 109 bikotek -hamar neskenak- eman dute izena pala txapelketan

Abenduaren 26an pala txapelketa hasi da. Aurten ere pilotari frango bilduko dire, denetara 109 bikotek izena eman baitute. Berritasun bat dugu aldiz, herriko hamar neska bikote aritu beitira lehian horien artean; halere erran behar da badirela neska bikoteak gizonen multzoetan. Aupa neskak, eta ez etsitu!

## Sarako Izarra errugbi elkartearen mus lehiaketa

Otsailaren 5ean, larunbatarekin, Sarako Errugbi elkarteak bere mus lehiaketa antolatuko du. Arratsaldeko 6etan, txapelketa hasiko da: final erdiak eta finalak eskainiko den afariaren ondotik jokatu dire.

Gau luze honetan parte hartzeko izenak hilabete honen 29ra arte ematen ahal diren errugbiko arduradunei.



**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**GIHARRE ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

**MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA**

San Marcial, 7-4 IRUN

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO**

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

## EZKONTZAK

**Valeriano Etulain Arretxea** eta **Maria Sagrario Irigoien Maritorea**, Berroeta eta Anizkoa, abenduaren 11n.

## JAIOTZAK

**Antton Etxeberri**, Sarakoa, abenduaren 29an.

**Ainhoa Elizagoien Varela**, Oronozkoa, azaroaren 27an.

**Maria Villoria Gomara**, Iruritakoa, abenduaren 10ean.

**Mikel Arozena Mitxeo**, Almandozkoa, abenduaren 15ean.

**Nerea Arraztoa Aleman**, Iruritakoa, abenduaren 23an.

**Aitor Txoperena Eugi**, Igantzikoa, abenduaren 10ean.

## HERIOTZAK

**Felipe Narbarte Zubillaga**, Goizuetakoa, abenduaren 22an, 64 urte.

**Francesco Giovanni Romagnoli Ramponi**, Berakoa, abenduaren 16an, 86 urte.

**Maria Alzuguren Mikelperizena**, Berakoa, abenduaren 23an, 8 hilabete.

**M<sup>a</sup> Asuncion Iriberrri Armasa**, Doneztebekoa, abenduaren 17an, 88 urte.

**Laurent Begiristain**, Sarakoa, abenduaren 15ean, 66 urte.

**Luciana Altxu Otxandorena**, Iturenkoa, abenduaren 20an, 79 urte.

**Martin Jaunsaras Iparragirre**, Iruritakoa, abenduaren 16an, 78 urte.

**Asuncion Elizetxe Dufurrena**, Erratzukoa, abenduaren 28an, 88 urte.

**Jose Ramon Bidart Azkarraga**, Arizkungoa, abenduaren 31n, 72 urte.

**Marcelino Korteia Irigoien**, Azpilkue-takoa, abenduaren 31n, 88 urte.

**Angela Bengoetxea Dolagarai**, Arraiozkoa, urtarrilaren 3an, 89 urte.

**Apolonia Iguzkiagirre Irigoien**, Igantzikoa, abenduaren 15ean, 79 urte.

**Juliana Etxeberria Telletxea**, Igantzikoa, abenduaren 31n, 82 urte.

**Ascension Ibarra Uhalde**, Sunbillakoa, urtarrilaren 2an, 90 urte.



## ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



## ZUBIRIA MINDEGIAK

- *Etxeak apaintzeko landareak*
- *Baso landareak*
- *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)  
Faxa: 948 581274



# Lainopear taldea nagusitu zen Euskal Kantu txapelketan

Eskualdeko kantariak maila polita erakutsi zuten Doneztebeko Bordatxon egindako finalean

Abenduaren 18an burutu zen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala. Beti bezala, hiru multzotan banatu ziren partehartzaileak: bakarlariak, bikoteak eta taldeak.

Bakarlarietan, Iruñeko Joseba Lasa suertatu zen irabazle, «Xanti» izeneko kantu berriarekin. Bigarren postua Estibaliz Agirre beratarrak eskuratu zuen, «Primaderako liliak» kantuarekin.

Bikoteak ere txapela Iruñera joan zen. Idoia Alonso eta Leire Martinek eraman zuten, «Maitemindurik» kantuarekin. Bigarren postua Aresoko Jon Pellejero eta Jaione Olazabalentzat izan zen, «Non dire?» kantuarekin.

Taldekako txapelketan bi lehendabiziko postuak eskualdean gelditu ziren. Txapela, Lekarozko Institutuko Lainopear taldearentzat izan zen. Urtz taldearen «Bizitzarekin dantzan» moldatu eta abestu zuten Lander Santamaria, Karmele Gomez, Iñigo Beltzunegi, Naxara Maiztegi eta Noe Muñozek. Gorramendi-10 taldeko partaideak ere beraiek dira eta uda honetan herriz herri egindako emanaldiak trebetasuna eman die taula gainera igo eta musikarik onena eskaintzeko. Orain, ekainaren 16an Gernikan burutuko den Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko modua izanen dute eta hori prestatzen hasiak dira.

Bigarren postua Leitzako



Naxara Maiztegi, Lander Santamaria, Iñigo Beltzunegi, Karmele Gomez eta Noe Muñozek osatzen dute Lainopear taldea.

Yoartzun taldearentzat izan zen, «Hilzori II» kantuarekin. Saioa, Oihana, Edurne, Judith eta Nekane osatzen zuten tal-

dea eta Bordatxo dantzalekua betetzen zuten 500 ikusleen sari berezia ere leitzarrentzat izan zen.

# Xabier Silveira garaile Iruñeko bertso-paperetan

Julen Zelaieta beratarra bigarren eta Asier Etxepeteleku lesakarra hirugarren

Iruñeko Udaleko Kultur Sailak urtero antolatzen duen XIV. Literatur lehiaketaren sariak banatu zituen abenduaren 23an. Komikia narrazio labur, olerki eta bertso-paper lehiaketetako sariak banatu ziren, baita San Fermin

Kazetaritza saria, haurrendako eguberrietako postalen lehiaketa eta artista gazteei zuzendutako sariketakoak ere. Bertso-paper lehiaketari dagokionez, sari guztiak Bortzirietara etorri ziren. Lehen saria



Iruñeko Udalak antolatutako lehiaketa ezberdinetan saritutako guztiak. Tartean, Silveira, Zelaieta eta Etxepeteleku.

Xabier Silveira lesakarrarentzat izan zen. Bigarrena, berriaz, Julen Zelaieta beratarr-

rentzat eta hirugarrena Asier Etxepeteleku lesakarrarentzat.

**DATUAK.....**

1 Rafa Errandonea pilotari arantzarrak hogeita bat urte ditu eta aste honar honetan debutatuko du profesionaletan, Sartagudan.

2 Garfe enpresa berriarekin hiru urteko kontratua sinatu du. Aspeko bigarren mailako pilotariekin jaialdiak eginen dituzte.

3 Afizionatu mailan jokatu-tako azken torneoa ETB-DV txapelketa izan da. Sunbillako finalerdia galdu zuen Otaegirekin batera, gerora txapel-dun izanen ziren Saralegi eta Navarroren kontra.

4 Duela bi hilabete profesionaletara pasatzeko aukera zegoela erran ziotenean ez zuen sinetsi. «Orain atera da eta kontent nago».

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
AITOR AROZENA


**Rafa ERRANDONEA** Arantzako pilotaria

# “Profesionaletara pausua emanda nire ametsik haundiena bete dut”

Joan den urtea boro-bila izan zen Rafa Errandonea Arantzako pilotariarentzat. Urte hase-ran, 21 urtez beheitiko Nafarroako Klub arteko txapelketa irabazi zuen Ander Agesta herritarrarekin batera, Oberena taldearentzat. Urte akabailan, profesionaletarako pausua eman du Garfe (Garcia eta Fernandez) enpresaren eskutik, hiru urterako kontratua sinatu ondotik. Debuta aste honar honetan eginen du Sartagudan. Bertze hiru lagun pasatu dira berekin: aurrelariak Otaegi azkoitiarra eta Lizarrako Martinez, atzelariak Marin II eta ni.

Garfe enpresa sortu berria bada ere, harreman berezia izanen su Asperekin, Rafak dienez. «Aspek bigarren mailako pilotari aunitz ditu eta ez omen dauzka denentzat partiduak. Garfe orain arte afizionatutan aritzen zen eta partidu aunitz plantatzen zituen Erribera, Errioxa eta Burgos aldean. Akordio batera ailegatu dira eta bi enpresetako pilotariak nahi hasita ariko gara».

ETB-DV txapelketaren finalerdietara ailegatu zen, Otaegirekin batera. «Egia erran, Sunbillan motel xamar aritu nintzen eta galdu



«Orain lau pasatu gara baina laster Agesta ere gure artean ikusi nahi nuke»

genuen». Horixe izan zen afizionatutako bere azken partidua.

Asegarce eta Aspen fitxaketa gutti egin dira azken aldi honetan eta beraz, zaila iruditzen zitzaion Errandonea IIIari profesionaletara igarotzea. «Uste-gabea izan da. Aspek behar baino pilotari

gehiago ere bazituen. Duela bi hilabete enpresa berriarena aipatu zigutenean ez nuen sinesten ere, baina orain atera da eta kontent nago».

**«PROFESIONALETARA PASATUZ NERE AMETSA BETE DUT»**

Afizionatutan partidu aunitz jokatu ditu Rafak udan, bain, alde horretatik aldaketa haundirik ez du espero. «Enpresa honek partidu aunitz izaten ditu Erribera alde horretan eta ez dugu aldaketa haundi-

rik somatuko, partiduak ia lehen haina jokatu-ko ditugu». Bere ametsik haundiena eta helburu nagusia bete du Arantzako atzelariak, profesionaletan aritzea, alegia. Orain partiduz oartidu joan nahi du. Tiki-tikitatik berekin arituen Ander Agesta herritarra ere abudo pasatuko dela pentsatzen du: «Momentuz lau pasatu gara, baina pilotari gehiago beharko dituzte gure enpresa horretan. Ea Ander pasatzen den eta berriz ere elkarrekin jokatzeko dugu».

► **«Enpresa honek frontoi aunitz ditu Erribera alde horretan eta ez dugu aldaketa haundirik somatuko, partiduak ia afizionatutan haina jokatu-ko ditugu»**

# Koteto Ezkurak binakako txapela ere jantzi zuen Imazekin batera

- 40 eta 37 irabazi zioten finalean Altuna II eta Etxaberi
- Urte berean banaka eta binakako txapelak irabazi ditu Kotetok

Koteto Ezkurak lortu zuen iaz buruz buruko eta binakako txapelak jantzea. Binakakoaren finala, Imazekin batera jokatu zuen hirugarren aldiz abenduaren 18an eta oraingoan irabaztea lortu zuen. 40-37 gailendu zitzaizen Altuna II eta Etxaberi, partidu ikusgarrian. Kotetorentzat bigarren txapela zen, 1994an lortutakoaren ondotik eta Imazentzat lehena.

Altuna II eta Etxabek hobeki hasi zuten partidua, baina berehala berdindu zuten irabazleek. Hogeitaseigarren berdinketa arte boladaka joan zen partidua. Altunak eta Ezkurak bi paretako zoragarriak eskaini zituzten.



**Koteto Ezkurra eta Imaz kontent, binakako erremonete txapelketaren finala Galarretan irabazi ondotik.** Euskaldunon Egunkaria

Hogeitaseigarren tantutik aitzinera abantaila handitzen joan ziren Ezkurra eta Imaz, 35-30 eta 37-32 joan baitziren aitzinetik. Bai-

na 37na berdindu zuten galtzaileek eta emozio handiko tantuak jokatu ziren hor. Imazek bikain eraman zituen azken txanpa horretako erre-

boteak eta Ezkurak maisuki akitu zituen tantuak. Koteto pozez gainezka ageri zen, bere lehen *dobletea* lortu ondotik.

# Mikel Saralegik irabazi du Nartxiren omenez antolatutako txapelketa

Hogeita hameka jasoaldietan 4.700 kilo altxatu zituen

Mikel Saralegi harrijasotzaile leitzarrak irabazi du Nartxi bere anaia zenaren omenez lehen aldiz antolatutako sariketa. Mikelek uste baino errexago menderatu zuen Joseba Ostolaza, abenduaren 21ean Donostiako Trinidadeko plazan jokatu zen finalean.

Kirolari bakoitzak 200 kiloko harri errektangularra eta 125eko bola erabili zituen, eta bakoitzarekin aritzeko hiruna minutu izan zi-

tuzten. Saralegik hamekajasoaldi eman zizkion 200 kilokoari eta Ostolazak zortzi, biak ere espero zen mailan.

125 kiloko bolaren saioan, ordea, uste baino jasoaldi gehiago eman zizkion leitzarrak, hogei guzira, txapela ia erabakita utziz. Ostolaza erritmo onean hasi zen bolarekin (8 jasoaldi lehen minutuan), baina pixkanaka betetzen joan zen eta hemezortzi altxaldi egin zituen guzira.



**Ostolaza eta Mikel Saralegi, finalaren ondotik.**

Azkenean, Mieltxo Saralegik 4.700 kilo altxatu zituen 31 jasoaldie-

tan eta Joseba Ostolazak 3.850 kilo 26 jasoaldietan.



## ❖ Josu Baleztena

Eratsungo pilotariak profesionaletan ariko da urte honetatik aurrera, ASPE enpresarekin kontratua sinatu ondotik. Hurrengo alean, pilotari gazte honi buruzko informazio zehatza eskainiko dugu.

## ❖ Mikel Mindegia

Nartxi Saralegiren omenezko finalaren aitzakian, aizkora apostua egin zuten Mikel Mindegiak eta Joxemari Olasagastik. Bi kanaerdiko, hiru 60 ontzako eta hiru oinbiko moztu zituzten eta Ezkurakoa izan zen azkarrena: 21 minutu eta 8 segundu behar izan zituen lana akitzeko, Olasagastik baino 48 segundu guttiago. Urte bikaina borobiltzeko modu ederra.

## ❖ XXI. mendeko erremonete txapelketa

jokatu da Eguberri egunetan. Iribarren eta Lizaso doneztebarrek bikote egin eta final erdietara ailegatuak ziren, hau idazterakoan. Etxeberria II, berriz, kanporatu egin zuten.

## ❖ Euskal Herriko solatira txapelketa

hasia da eta eskualdeko bi ordezkariak, Lesakako Beti Gazte eta Areso, maila guzietan lehiatuko dira. 560 kiloko finala Lesakan jokatu da otsailaren 19an. Otsailaren 24tik 27ra Holandan egingen den Munduko txapelketarako sailkatu nahi dute.

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO

► **Urtarrilaren 14an**

Mal de Ojo. 10, 30-  
etan Kasino ostatuan.

► **Urtarrilaren 22an**

Wallrid. 10, 30etan  
Kasino ostatuan.

#### BERA

► **Urtarrilaren 21ean**

Piztiak taldea. Pui osta-  
tuan. Arratseko 10etan.

► **Urtarrilaren 16an**

"Plazatik salarat", musi-  
ka barrokoa. Berako  
elizan, meza ondotik.

### ANTZERKIA

#### ELIZONDO

► **Urtarrilaren 15ean**

Iruritako Aranabia an-  
tzerki taldearen emanal-  
dia Kasino aretoan.  
Arratsaldeko 6etan.

### SAN ANTON EGUNA

#### ELIZONDO

► **Urtarrilaren 17an**

Elizondoko Plazan, ber-  
tsoak, Baztan zopak...

### ERAKUSKETAK

#### ELIZONDO

► **Urtarrilaren 15a**

**arte** "Brasil" erakuske-  
ta, 'Sodepaz'-ek antola-  
tua. Arizkunenean.

### GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tf. deitu behar da

► **Urtarrilaren**

**10etik 16** Etxalar  
Narbarre, Elizondo (Le-  
zaun) eta Goizueta.

► **Urtarrilaren 17tik**  
**23ra** Arantza, Donez-  
tebe, Elizondo (Iturrat-  
de), Leitza eta Goizue-  
ta.

► **Urtarrilaren 24tik**  
**30era** Igantzi, Sunbi-  
lla, Elizondo (Lezaun)  
eta Goizueta.

### JAKIN BEHARREKOAK

## Tea: Txinatik Europara

Tea, berez, landare psiko-estimulatzaila da. Te landa-  
retik teofilina ateratzen da,  
kafeinaren antzeko osagaia,  
baina askoz ere indartsuagoa.  
Tea hostoak egosita hartzen  
denez eta kafea, berriz, ale-  
ak txikituta, tearen ezaugarri-  
ak ezkutuagoan geratzen di-  
ra. Horregatik bere eragin psi-  
koestimulatzaila txikiagoa  
izan ohi da.

Kafe-kikara batean batuz  
beste 70 mg kafeina egon dai-  
tezke; tamaina bereko te-kika-  
ra batean, berriz, 100 mg.  
Neurrian hartuz gero, teak ez  
dakar aparteko kalterik, bai-  
na gehitxo hartuz gero kalte-  
ak nabariak dira: urdaileko  
arazoak, buruko minak, hipo-  
kondria, oroimenaren galtzea,  
begietan arazoak eta zirrosia.  
Beraz, beste gauza asko beza-  
la, tea ere neurrian.

#### ASPALDIKO OHITURA

Tea hartzeko ohitura ez da  
atzo goizekoa. Txinan, esate  
baterako, ezaguna da Kristo  
aurretik 250. urterako dago-  
eneko erabiltzen zutela ur ira-  
kinari zapore ona emateko.  
Tearen eta europarren arteko  
harremana 1497. urtean hasi  
zen, portugesak Indiara iris-  
tearekin batera. Historiala-



Tearen eragin psikoestimulatzaila kafearena baino txikiagoa da.

riek diotenez, Europara lehen  
te-kargamentua 1610. urtean  
iritsi zen, Amsterdamera,  
Sortaldeko Indietako Kon-  
painiaren eskutik. Edari be-  
rriaren erabilera laster heda-  
tu zen, baina ez pentsa daite-  
keen bezain azkar. Holandan  
eta Ingalaterran egunero eta

maiz hartzen hasi ziren —gi-  
nebraren ordeez—, Frantzian  
gutxiago, Alemanian kafea  
nahiago zuten, eta Espai-  
nian ez zuen inolako arra-  
kastarik izan. Denborarekin,  
eta Europako merkatarien lan-  
ari esker, tea mundu osora  
hedatu zen, bai landatzeko  
eta baita edateko ere.

Ingalaterrak du te-hartzaile  
onenaren ospea, eta arratsal-  
deko 5etako tearen ohiturak  
oihartzun haundia du. Hala  
ere, te-hartzaile onenak txi-  
natarrek dira, egunero mun-  
duko gainerako herrialdeetan  
baino gehiagotan eta jende  
gehiagok hartzen baitu.

*Txinan,  
Kristo aurretik 250.  
urterako dagoeneko  
erabiltzen zuten  
ur irakinari  
zapore ona  
emateko.*

### Liburuak



«Gerezi denbora»

Inazio MUJIKIRAOLA

ALBERDANIA

Inazio Mujika donostiarraren bi-  
garren narrazio liburua da hona-  
ko hau, lehendik "Azukrea bela-  
zeetan" karrikaratu baitzuen Irun-  
go argitaletxearen eskutik.

1936ko gerra zibilaren kontuak  
gustoko dituzten irakurleentzat  
aproposa da liburu hau, gerra  
latz horretan girotua baitago  
kontakizuna. Ez da historia libu-  
ru bat, ordea, une historiko ze-  
hatz horren gainean eraikitako  
fikziozko istorio bat baizik. Per-

tsionia nagusiak CNTko anar-  
kistak dira, baina ez dira falta  
garai hartako frankista, abertza-  
le euskaldunak... Idazlearen  
imaginaziotik sortuak dira denak,  
nahiz eta orduko pertsonaien  
ezaugarri guziak izan. Horrek  
biziago eta ulergarriago egiten  
du irakurketa, eta gure historia-  
ren zati garrantzitsu bat ulertze-  
ko modua ere ematen die histo-  
ria liburuak astunegi egiten zaiz-  
kien irakurleei.

# MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).  
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

101 SALDU

**ADOS**

**IRURITA.**

- Lur eremu eraikigarria salgai.

© 948 451 841

## GOIKO SL

LEITZA. 7 etxe berri eraiki behar ditugu. Informa zaitez.

© 649 476 615 • 948 510 346

**BERA.** 110 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, bi bainu, egongela eta sukaldia. Mobeztatua.. ☎ 948 630 946 (eguerdiko 2etatik aitzin).

**BERA.** 125 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, bi bainu, egongela eta sukaldia. ☎ 609 402 443.

**ARANTZA.** Pisua salgai, sotoa, ganbara eta 45 m<sup>2</sup>ko garajearekin. Berritua. Prezio negoziagarria. ☎ 948 634 133.

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, bi bainu, sukaldia ekipatua, egongela eta 31 m<sup>2</sup>ko ganbara. Oso ona. ☎ 609 402 443.

## ETXEBIZITZAK

102 EROSI

**ADOS**

- Eskiera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

© 948 451 841

Pisua erosi edo errentan hartuko nuke **LESAKA** edo **BERA**n. Txikia nahikoa da, logela bakarrekoa edo. ☎ 93 4910608.

## ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Pisua errentan ematen nuke Eztegarra karrikan. Mobeztatua. ☎ 948 630 449.

## ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

**LEITZA.** Pisu ttiki bat hartuko nuke errentan. Ahal den merkeena eta mobeztatu gabea hobe. ☎ 948 610 891.

## GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

**LESAKA.** Lur-azpiko bajea errentan ematen nuke Bittiria karrikan. ☎ 948 630786.

**BERA.** 70 m<sup>2</sup>ko janaridenda saldu edo alokatzen da. Lokala hutsik hartzeko modua ere bada. ☎ 948 630 394.

## GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

**LESAKA.** Batzoki ostatu-jatetxea errentan ematen dugu. ☎ 948 627 522 edo 610 012 224.

## LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

**BERA.** Alkaiagako tunelaren ondoan lur-eremu eraikigarria salgai. ☎ 948 630 589.

## ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

**ARANTZA ZYRGINDEGIÀ**

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

## LANA

302 ESKAINTZAK

**Soldatzailea** behar dugu. 31780-Bera-2. postakutxa. ☎ 948 631 013.

Frantsesa dakiten **neska-mutilak** behar dira ostalaritzan lan egiteko. 6 hilabetez. ☎ 948 630 229.

**Neska edo mutila** behar da ostatu-jatetxe batean lan egiteko. ☎ 948 630 033.

## MOTORRA

501 SALEROSKETAK

**Golf GTI** salgai. Egoera onean eta merke. Extra askorekin. ☎ 948 452 314.

**Karabana** bat salgai Goizuetan, abantzea, kanpoko sukaldia eta karparkin. ☎ 948 514 061.

**Seat Ibiza** 1.5 salgai. 4 ate. NA-AF. ☎ 948 631 091.

**Citroen ZX TD** familiarra salgai. 3 urte. NA-AZ. 80.000 km. ☎ 600 386 172 (gauetz).

**Citroen AX** 1.4 salgai. NA-X. ☎ 948 630 559.

## MOTORRA

502 TAILERRAK

## MENDAUR MOTOR

© 948 450333 • DONEZTEBE

### Bigarren eskuko kotxeak:

- R-19 D, R-Express D, Corsa D, Astra GSI.
- Suzukiak aukeran
- Aberia trianguloak salgai.

**GANIX**  
Tailerrak

Iturialdeta, 9 • © 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

**BERABI** tailerrak  
© 948 631 445•BERA

Citroen C-25 D, Ford  
Mondeo TD, Nissan Vanette,  
Discovery 2.5 TD luxuzkoa.

ETORRI NISSAN PRIMERA  
BERRIA IKUSTERA

## ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

**70 ardi** salgai, beren dertxoekin. Asto bat ere bai. ☎ 948 637 468.

Haragitarako behi baten **dertxoak** erosiko nituzke. ☎ 948 637 378.

## ANIMALIAK

603 KLINIKAK

### ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak  
© 948631362 • Legia 13 • BERA



# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

**OHARRA:**  
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobrea bat eta helbidea bidali.



**Lidia Indakoetxea** aranztarrak urtarriaren 4an bete ditu 6 urte. Zorionak bere ata, ama eta Taniaren partetik.



**Mirian Martin** arizkundarrak abenduaren 21ean 7 urte bete ditu. Zorionak ama, osaba-izeba eta bereziki amaxiren partetik. Muxu bat.



**Ainhoa Berasategi Artieda** beratarrak abenduaren 27an bete ditu 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**M<sup>a</sup> Belen Carrillo** beratarrak urteak bete ditu abenduaren 27an. Zorionak guzuzon partetik.



**Naïke eta Shaila** lesakarrekin 16 urte bete dituzte abenduaren 31n. Zorionak familia guziaren partetik eta muxu bat Nagoreren partetik.



**Mattin Irigoien** beratarrak eta **Fausto Matxiarena** donostiarrak urtarriaren 5 eta 10ean urteak bete dituzte. Gure Mattin, kaxkarro tikiak, 4 urte eta osaba intumisoak 21 urte. Muxu bana eta aunitz urtez. Etxekoak.



**Mattintxo Irigoien Matxiarena** 4 urte bete ditu. Milaka muxu kokotxean eta zorionak Pottoko, Donostia-Berako trup-en partez.



**Txumari Goia Etxebeste** beratarrak urteak bete ditu abenduaren 22an. Aunitz urtez eta zorionak Kubako kuadrilaren partetik.



**Santi Torres** beratarrak urtarriaren 2an urteak bete ditu. Zorionak Edurne eta familiaren partetik.



**Jaione Iraola** beratarrak abenduaren 27an urteak bete ditu. Zorionak mañika, lagunen partetik.



**Jasone:** zorionak abenduaren 22an urteak bete ditu. Zorionak mañika, familia guziaren partetik.



**Maider Arozena Urrozte** 4 urte bete ditu urtarriaren 8an. Zorionak bere familiaren partetik.



**Irati Mitxelena Tolosa** etxalartarrak urtarriaren 14ean 15 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Garazi Mitxelena Tolosa** etxalartarrak urtarriaren 21ean 13 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Natalia de Dios Goienez** beratarrak urtea bete du urtarriaren 1ean, Zorionak guraso, aiton-amon eta familiaren partetik.



**Unai Udaeta Zubieta** beratarrak 7 urte bete ditu urtarriaren 5ean. Etxekoak partetik, mila zorion, rokzale!



**Garbiñe Altzugarai Alvarez** lesakarrak abenduaren 30ean 10 urte bete ditu. Zorionak ata, ama eta Itzarren partetik. Muxu bat.



**Martxelo Goñi** aranztarrak urteak beteko ditu urtarriaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat etxekoak partetik. Ongi pasa.



**Alaitz Aguilar Lazkanotegi** beratarrak hilbeltzaren 7an 5 urte bete ditu. Zorionak ata, ama, Ainhoa eta Ibonen partetik. Muxu handi bat.



**Alaitz Aguilar Lazkanotegi** beratarrak hilbeltzaren 7an 5 urte bete ditu. Zorionak attona-amoiña, Beatriz, Uxua eta Juanjoren partetik.



**Ander Bergara Siles** beratarrak 10 urte beteko ditu urtarriaren 15ean. Zorionak familia guziaren partetik.



**Jokin Huizi Pradanos** beratarrak 3 urte bete ditu urtarriaren 9an. Zorionak eta ongi pasa. Maita zaitugu.



**Santi Gamio eta Elixabet Lekuberría** gazteluarrek urtarriaren 7 eta 4an bete dituzte urteak. Zorionak familia guziaren partetik eta bereziki Amaiaeren partetik. Muxuak eta besarkadak.



**Josetxo Gamio** gazteluarrek urteak bete ditu urtarriaren 10ean. Zorionak emaztea eta Arantza eta Gazteluko familiaren partetik.



**Josu Telletxea** donamarrak urtarriaren 13an beteko ditu 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat guraso, Mikel eta Oiharen partetik.



**Irain Gileneña Iriarte** beratarrak urtarriaren 9an bete du urtea. Zorionak eta muxuak gure sorgintxoari. Izei, ata eta ama.



**Erreterriako Arantxa Santestebanek** 80 urte bete ditu urtarriaren 2an. Zorionak Arkupeko atso guzien partetik. Aupa Lope!!



**Ander Olaizola Etxegarai** lesakarrak 8 urte bete ditu hilbeltzaren 9an. Muxu handi bat Jon, ata eta amaren partetik.



**Mario:** urtarriaren 5ean urteak bete ditu. Zorionak Benta Gorako lagunen partetik. ¡Chate fuera! ¡Que tiene!



**Arantzako Josetxori** zorionak eta muxu handi bat bere amaren partetik. Aupa "joxe-porro"!



Berako **Esteban eta Trini** urtarriaren 12an urrezko ezteiak bete dituzte. Zorionak eta muxu bana familia guziaren.



**Edurne Zabaleta Sasturain** leizarrak 6 urte beteko ditu urtarriaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat Maxuxen partetik.



**Oier Ortiz Goikoetxea** urteak bete ditu urtarriaren 8an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**Eneritz Lanz** beratarrak urtarriaren 11n urteak bete ditu. Zorionak Lakiren partetik.



**Julene Ortega** beratarrak 4 urte beteko ditu urtarriaren 17an. Zorionak guraso, bi amaxi eta aitaxiren partetik. Muxu bat.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Haritz amerikano** plantak salgai. ☎ 948 450 888 (eguerdi eta arratsetan).

**Haritz amerikano** plantak salgai. ☎ 948 450771.

**Aleazioko llantak** salgai. 3 makilekoak, 14"koak. 50.000 pta. ☎ 948 631 436 edo 656 722 719 (Asier, eguerditan).

**Zaldiarendako karroa** salgai, zaldiaren gaineko tresnak ere bai. ☎ 948 637 910. 100 litroko **esne tankea** salgai. ☎ 948 637 910.

Sunbilla **eltzaur plantak** saltzeko. ☎ 948 450 974 (deitu eguerdi-arratsean).

Bigarren eskuko **mobleak** salgai. ☎ 00 33 559 540700.

Mossey Ferguson **trakto-rea** salgai, sarde altxatzailarekin. 87koa. 5.500 ordu. Egoera onean. ☎ 00 33 559 54 3377 (Beñat).

Junker markako **berogailua** salgai. Egoera onean. 12.000 pta. ☎ 948 510 540 (gauetan).

**Kalefakziorako kaldera** eta Deville markako sukalde-kaldera salgai. Egurra zein ikatza erretzeko. ☎ 948 387 089.

Gasoilezko Tifell markako **berogailu-kaldera** salgai. Egoera hagitz onean. ☎ 948 637 149.

Musika jotzeko **bateria** salgai, gutti erabilia. ☎ 948 630 121.

4.000m<sup>2</sup>ko  
erakusketa  
mobleak  
ikusteko



Sarrera BERAtik da  
Alkaiagako industrialdean  
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4  
31789 LESAKA

*MUEBLES AMETS*en  
gazteendako mobleei behar  
den garrantzia ematen diegu,  
material eta kolore ezberdinei  
esker, gusto eta behar guzietara  
moldatzeko.

Gainera, ordenagailuaren  
bitartez, neurrira diseinatze-  
ko aukera ere eskaintzen  
dizugu, lekua ahalik eta hobe-  
kien aprobetxatzeko.

Larunbat arratsaldetan irekia

